(32) Adostasuna baieztapen-egintza argi bat izango da, erakusten duena interesdunaren borondate-adierazpen askea, zalantzarik gabea, zehatza eta arrazoitua, bera ukitzen duten datu pertsonalak tratatzea onartzen duena; izan daiteke idatzizko adierazpena (baita bitarteko elektronikoen bidez ere) edo ahozko adierazpena. Horren barruan egon liteke interneteko web-gune batean laukitxo bat markatzea, informazioaren gizarteko zerbitzuak erabiltzeko parametro teknikoak aukeratzea, edo beste edozein adierazpen edo jokamodu, testuinguru horretan argi adierazten duena interesdunak onartu egiten duela bere datu pertsonalak tratatzeko proposamena. Beraz, isiltasunaren, aurretik markatutako laukitxoaren edo jarduera-ezaren bidez ez da adostasunik adieraziko. Adostasuna emango da helburu edo helburu multzo berberarekin egindako tratamendu-jarduera guztietarako. Tratamenduak helburu bat baino gehiago badu, guztietarako eman behar da adostasuna. Interesdunaren adostasuna bitarteko elektronikoen bidezko eskabide bat dela-eta eman behar bada, argia eta zehatza izan behar du eskabideak, eta premiarik gabe ez du oztopatu behar adostasuna ematen zaion zerbitzua erabiltzea.

(33) Askotan, ikerketa zientifikorako datu pertsonalak biltzen diren unean, ezin da guztiz zehaztu tratamenduaren helburua. Horrenbestez,

datos si reciben datos personales que son necesarios para llevar a cabo una investigación concreta de interés general, de conformidad con el Derecho de la Unión o de los Estados miembros. Las solicitudes de comunicación de las autoridades públicas siempre deben presentarse por escrito, de forma motivada y con carácter ocasional, y no deben referirse a la totalidad de un fichero ni dar lugar a la interconexión de varios ficheros. El tratamiento de datos personales por dichas autoridades públicas debe ser conforme con la normativa en materia de protección de datos que sea de aplicación en función de la finalidad del tratamiento.

(32) El consentimiento debe darse mediante un acto afirmativo claro que refleje una manifestación de voluntad libre, específica, informada, e inequívoca del interesado de aceptar el tratamiento de datos de carácter personal que le conciernen, como una declaración por escrito, inclusive por medios electrónicos, o una declaración verbal. Esto podría incluir marcar una casilla de un sitio web en internet, escoger parámetros técnicos para la utilización de servicios de la sociedad de la información, o cualquier otra declaración o conducta que indique claramente en este contexto que el interesado acepta la propuesta de tratamiento de sus datos personales. Por tanto, el silencio, las casillas ya marcadas o la inacción no deben constituir consentimiento. El consentimiento debe darse para todas las actividades de tratamiento realizadas con el mismo o los mismos fines. Cuando el tratamiento tenga varios fines, debe darse el consentimiento para todos ellos. Si el consentimiento del interesado se ha de dar a raíz de una solicitud por medios electrónicos, la solicitud ha de ser clara, concisa y no perturbar innecesariamente el uso del servicio para el que se presta.

(33) Con frecuencia no es posible determinar totalmente la finalidad del tratamiento de los datos personales con fines de investigación



aukera eman behar da interesdunek baimena eman dezaten ikerketa zientifikoko zenbait esparrutan, betiere ikerketa zientifikorako aitortutako arau etikoak betez. Interesdunek aukera izan behar dute baimena bakarrik emateko ikerketa-arlo jakin batzuetarako edo ikerketa-proiektuetako zati batzuetarako, lortu nahi den helburuak horrela egitea ahalbidetzen duten heinean.

(34) Datu genetikoztat honako datu pertsonal hauek jo behar dira: pertsona fisiko batek heredatu edo eskuratu dituen ezaugarri genetikoei buruzko datu pertsonalak, pertsona horren lagin biologiko baten analisitik ateratak, bereziki analisi kromosomikotik, azido desoxirribonukleikoaren (DNA) analisitik edo azido erribonukleikoaren (RNA) analisitik edo informazio baliokidea lortzeko aukera ematen duen beste edozein elementuren analisitik ateratak.

(35) Osasunarekin lotutako datu pertsonalen artean sartu behar dira interesdunaren iraganeko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisikoaren zein mentalaren egoerari buruzko informazioa ematen duten datu guztiak. Horrek honako hauek hartzen ditu barne: osasun-laguntza emateko inskribatzean edo hura ematean pertsona fisikoari buruz bildu den informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/24/EB Zuzentarauaren arabera⁽⁹⁾; pertsona fisiko bati esleitutako edozein zenbaki, sinbolo edo datu, baldin eta horrek era unibokoan identifikatzen badu osasun-zerbitzuei dagokienez; gorputzaren atalen baten edo gorputzeko substantziaren baten probak edo azterketak egitetik ateratako informazioa, datu genetikoetatik eta lagin biologikoetatik ateratakoa barne; eta beste edozein informazio, baldin eta lotura badauka, esaterako, interesdunaren gaixotasunen batekin, desgaitasunen batekin, gaixotasunak izateko arriskuarekin, historia medikoarekin, tratamendu klinikoarekin edo egoera fisiologiko edo biomedikoarekin, edozein iturritatik datorrela ere (adibidez, mediku batengandik edo beste osasun-profesional batengandik, ospitale

científica en el momento de su recogida. Por consiguiente, debe permitirse a los interesados dar su consentimiento para determinados ámbitos de investigación científica que respeten las normas éticas reconocidas para la investigación científica. Los interesados deben tener la oportunidad de dar su consentimiento solamente para determinadas áreas de investigación o partes de proyectos de investigación, en la medida en que lo permita la finalidad perseguida.

(34) Debe entenderse por datos genéticos los datos personales relacionados con características genéticas, heredadas o adquiridas, de una persona física, provenientes del análisis de una muestra biológica de la persona física en cuestión, en particular a través de un análisis cromosómico, un análisis del ácido desoxirribonucleico (ADN) o del ácido ribonucleico (ARN), o del análisis de cualquier otro elemento que permita obtener información equivalente.

(35) Entre los datos personales relativos a la salud se deben incluir todos los datos relativos al estado de salud del interesado que dan información sobre su estado de salud física o mental pasado, presente o futuro. Se incluye la información sobre la persona física recogida con ocasión de su inscripción a efectos de asistencia sanitaria, o con ocasión de la prestación de tal asistencia, de conformidad con la Directiva 2011/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo⁽⁹⁾; todo número, símbolo o dato asignado a una persona física que la identifique de manera unívoca a efectos sanitarios; la información obtenida de pruebas o exámenes de una parte del cuerpo o de una sustancia corporal, incluida la procedente de datos genéticos y muestras biológicas, y cualquier información relativa, a título de ejemplo, a una enfermedad, una discapacidad, el riesgo de padecer enfermedades, el historial médico, el tratamiento clínico o el estado fisiológico o biomédico del interesado, independientemente de su fuente, por ejemplo un médico u otro profesional sanitario, un hospital, un dispositivo médico, o una prueba



batetik, gailu mediko batetik edo in vitro egindako proba diagnostiko batetik).

(36) Tratamenduaren arduradun baten Batasuneko establezimendu nagusiak Batasunean duen administrazio zentralaren kokapena izan behar du, salbu eta tratamenduaren helburu eta bitartekoei buruzko erabakiak arduradunak Batasunean duen beste establezimendu batean hartzen badira; kasu horretan, erabakiak hartu diren establezimendu hori hartuko da establezimendu nagusitzat. Arduradun batek Batasunean duen establezimendu nagusia irizpide objektiboen arabera zehaztu behar da, eta horretan benetan gauzatu behar dira modalitate egonkorren bidez tratamenduaren helburuei eta bitartekoei buruzko erabaki nagusiak ezartzen dituzten kudeaketa-jarduera errealak. Irizpide horrek independentea izan behar du datu pertsonalen tratamendua toki horretan egiten den edo ez. Datu pertsonalen tratamendurako bitarteko tekniko eta teknologiak egoteak edo tratamendu-jarduerek ez dakarte berez establezimendu nagusia izatea, eta, horrenbestez, ez dira establezimendu nagusia zein den zehazten duten funtseko irizpideak. Tratamenduaren eragilearen establezimendu nagusia Batasunean duen administrazio zentralaren kokapena izan behar du, edo, Batasunean administrazio zentralik izan ezean, Batasuneko tratamendu-jarduera nagusiak egiten diren tokia. Arduraduna zein eragilea tartean dauden kasuetan, arduradunak bere establezimendu nagusia duen estatu kideko kontrol-agintaritzak izan behar du eskumena duen kontrol-agintaritzak nagusia, baina kontrol-agintaritzak interesduntzat jo behar da eragilea kontrolatzen duen agintaritzak, eta parte hartu behar du erregelamendu honetan ezarritako lankidetzaprozeduran. Nolanahi ere, eragileak establezimendu bat edo gehiago duen estatu kideko edo estatu kideetako kontrol-agintaritzak ez dira kontrol-agintaritzak interesduntzat hartu behar, baldin eta erabaki-proiektuak arduradunari baino eragiten ez badio. Tratamendua enpresa talde batek egiten duenean, kontrola gauzatzen duen enpresaren establezimendu nagusia jo behar da enpresa taldearen establezimendu nagusitzat, salbu

diagnóstica in vitro.

(36) El establecimiento principal de un responsable del tratamiento en la Unión debe ser el lugar de su administración central en la Unión, salvo que las decisiones relativas a los fines y medios del tratamiento de los datos personales se tomen en otro establecimiento del responsable en la Unión, en cuyo caso, ese otro establecimiento debe considerarse el establecimiento principal. El establecimiento principal de un responsable en la Unión debe determinarse en función de criterios objetivos y debe implicar el ejercicio efectivo y real de actividades de gestión que determinen las principales decisiones en cuanto a los fines y medios del tratamiento a través de modalidades estables. Dicho criterio no debe depender de si el tratamiento de los datos personales se realiza en dicho lugar. La presencia y utilización de medios técnicos y tecnologías para el tratamiento de datos personales o las actividades de tratamiento no constituyen, en sí mismas, establecimiento principal y no son, por lo tanto, criterios determinantes de un establecimiento principal. El establecimiento principal del encargado del tratamiento debe ser el lugar de su administración central en la Unión o, si careciese de administración central en la Unión, el lugar en el que se llevan a cabo las principales actividades de tratamiento en la Unión. En los casos que impliquen tanto al responsable como al encargado, la autoridad de control principal competente debe seguir siendo la autoridad de control del Estado miembro en el que el responsable tenga su establecimiento principal, pero la autoridad de control del encargado debe considerarse autoridad de control interesada y participar en el procedimiento de cooperación establecido en el presente Reglamento. En cualquier caso, las autoridades de control del Estado miembro o los Estados miembros en los que el encargado tenga uno o varios establecimientos no deben considerarse autoridades de control interesadas cuando el proyecto de decisión afecte únicamente al



eta beste enpresa batek zehazten baditu helburuak eta bitartekoak.

(37) Enpresa talde bat honako hauek osatu behar dute: kontrola gauzatzen duen enpresa batek eta kontrolatutako enpresak; kontrola gauzatzen duen enpresak beste enpresen gaineko eragin nagusia eduki behar du, adibidez, jabetza duelako, finantza-partaidetza duelako, arautzen dituzten arauengatik edo datu pertsonalen babeserako arauak betearazteko ahalmena duelako. Kide dituen enpresetan datu pertsonalen tratamendua kontrolatzen duen enpresa, haiekin batera, «enpresa taldeztat» jo behar da.

(38) Hurrek beren datu pertsonalen babes espezifiko izan behar dute, kontzientzia txikiagoa izan baitezakete datu pertsonalen tratamenduaren inguruko arrisku, ondorio, berme eta eskubideei buruz. Bereziki, babes espezifiko hori aplikatu behar da haurren datu pertsonalen erabilerari, marketinerako edo nortasunaren edo erabiltzailearen profila egiteko erabiltzen badira, eta haurren datu pertsonalak lortzeari, zerbitzuak haurrari zuzenean eskaintako zerbitzuak erabiltzen direnean. Guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularraren baimenak ez du beharrezkoa izan behar hurrei zuzenean eskaintzen zaizkien prebentzio- edo aholkularitza-zerbitzuen esparruan.

(39) Datu pertsonalen tratamendu guztia legezkoa eta fidela izan behar da. Pertsona fisikoei argi eta garbi geratu behar zaie eragiten dieten datuak biltzen, erabiltzen, kontsultatzen edo bestela tratatzen ari direla, baita datu horiek zer neurritan tratatzen ari diren edo tratatuko diren ere. Gardentasunaren printzipioak eskatzen du datu

responsable. Cuando el tratamiento lo realice un grupo empresarial, el establecimiento principal de la empresa que ejerce el control debe considerarse el establecimiento principal del grupo empresarial, excepto cuando los fines y medios del tratamiento los determine otra empresa.

(37) Un grupo empresarial debe estar constituido por una empresa que ejerce el control y las empresas controladas, debiendo ser la empresa que ejerce el control la que pueda ejercer una influencia dominante en las otras empresas, por razones, por ejemplo, de propiedad, participación financiera, normas por las que se rige, o poder de hacer cumplir las normas de protección de datos personales. Una empresa que controle el tratamiento de los datos personales en las empresas que estén afiliadas debe considerarse, junto con dichas empresas, «grupo empresarial».

(38) Los niños merecen una protección específica de sus datos personales, ya que pueden ser menos conscientes de los riesgos, consecuencias, garantías y derechos concernientes al tratamiento de datos personales. Dicha protección específica debe aplicarse en particular, a la utilización de datos personales de niños con fines de mercadotecnia o elaboración de perfiles de personalidad o de usuario, y a la obtención de datos personales relativos a niños cuando se utilicen servicios ofrecidos directamente a un niño. El consentimiento del titular de la patria potestad o tutela no debe ser necesario en el contexto de los servicios preventivos o de asesoramiento ofrecidos directamente a los niños.

(39) Todo tratamiento de datos personales debe ser lícito y leal. Para las personas físicas debe quedar totalmente claro que se están recogiendo, utilizando, consultando o tratando de otra manera datos personales que les conciernen, así como la medida en que dichos datos son o serán tratados. El principio de transparencia exige que toda



horien tratamenduari buruzko informazio eta komunikazio guztiak errazak izan daitezela eskuratzen eta ulertzen, eta hizkera erraza era argia erabil dadila. Printzipio horrek, honako arlo hauei egiten die aipu bereziki: zein den tratamenduaren arduraduna, zertarako egiten den eta zer informazio gehitu den, hala tratamendua ukitutako pertsona fisikoentzat fidela eta gardena dela bermatzeko; eta tratatu diren euren buruzko datu pertsonalen berrespena eta komunikazioa lortzeko eskubidea. Pertsona fisikoek jakin behar dute zer arrisku, arau, babes eta eskubide dauden datu pertsonalen tratamenduaren inguruan, baita tratamenduaren inguruko beren eskubideak nola baliatu ere. Bereziki, datu pertsonalen tratamenduaren helburu espezifikoek esplizitu eta legítimoak izan behar dute, eta datuak biltzen diren unean zehaztu behar dira. Datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera. Horrek berariaz eskatzen du behar den eperik laburrenera mugatzea datuen kontserbazioa. Tratamenduaren xedea beste bide batzuen bidez lortu ezin denean baino ez dira tratatu behar datu pertsonalak. Datu pertsonalak behar den baino luzarago kontserbatzen ez direla bermatzeko, tratamenduaren arduradunak epeak ezarri behar ditu horiek ezabatzeko edo aldizkako berrikuspena egiteko. Arrazoizko neurri guztiak hartu behar dira okerrak diren datuak zuzendu edo ezabatzen direla bermatzeko. Datu pertsonalak beraien segurtasun eta konfidentziasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dira, baita datu horien eta tratamenduan erabili den ekipoaren baimenik gabeko sarbidea edo erabilera saihesteko ere.

información y comunicación relativa al tratamiento de dichos datos sea fácilmente accesible y fácil de entender, y que se utilice un lenguaje sencillo y claro. Dicho principio se refiere en particular a la información de los interesados sobre la identidad del responsable del tratamiento y los fines del mismo y a la información añadida para garantizar un tratamiento leal y transparente con respecto a las personas físicas afectadas y a su derecho a obtener confirmación y comunicación de los datos personales que les conciernen que sean objeto de tratamiento. Las personas físicas deben tener conocimiento de los riesgos, las normas, las salvaguardias y los derechos relativos al tratamiento de datos personales así como del modo de hacer valer sus derechos en relación con el tratamiento. En particular, los fines específicos del tratamiento de los datos personales deben ser explícitos y legítimos, y deben determinarse en el momento de su recogida. Los datos personales deben ser adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario para los fines para los que sean tratados. Ello requiere, en particular, garantizar que se limite a un mínimo estricto su plazo de conservación. Los datos personales solo deben tratarse si la finalidad del tratamiento no pudiera lograrse razonablemente por otros medios. Para garantizar que los datos personales no se conservan más tiempo del necesario, el responsable del tratamiento ha de establecer plazos para su supresión o revisión periódica. Deben tomarse todas las medidas razonables para garantizar que se rectifiquen o supriman los datos personales que sean inexactos. Los datos personales deben tratarse de un modo que garantice una seguridad y confidencialidad adecuadas de los datos personales, inclusive para impedir el acceso o uso no autorizados de dichos datos y del equipo utilizado en el tratamiento.

(40) Tratamendua legezkoa izan dadin, interesdunaren adostasunarekin tratatu behar dira datu pertsonalak, edo zuzenbidearen arabera ezarritako legezko beste oinarri batekin: erregelamendu hau izan daiteke, edo

(40) Para que el tratamiento sea lícito, los datos personales deben ser tratados con el consentimiento del interesado o sobre alguna otra base legítima establecida conforme a Derecho, ya sea en el presente Reglamento o en virtud de otro



erregelamendu honek erreferentzia egiten dion Batasuneko edo estatu kideetako beste zuzenbideren bat; horren barruan sartuta dago tratamenduaren arduradunak dituen lege-eginbeharrak bete behar izatea, edo interesduna horren parte den kontratu bat egikaritu behar izatea, edo interesdunaren eskariz neurriak hartzeko kontratua amaitu baino lehen.

(41) Erregelamendu honek oinarri juridiko bati edo legegintzako neurri bati erreferentzia egiten dionean, horrek ez du nahitaez eskatzen parlamentu batek hartutako legegintza-egintzarik, estatu kide horretako ordenamendu konstituzionalaren betekizunak alde batera utzi gabe. Hala ere, oinarri juridiko edo legegintzako neurri horrek argia eta zehatza izan behar du, eta haren aplikazioa haren hartzaileek aurreikusteko modukoa, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (aurrerantzean "Justizia Auzitegia") eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziarekin bat etorritik.

(42) Tratamendua interesdunaren adostasunarekin gauzatzen denean, tratamenduaren arduradunak gai izan behar du frogatzeko hark eman duela tratamendu-eragiketa egiteko baimena. Bereziki, beste gai bati buruz egindako idatzizko adierazpen baten testuinguruan, bermatu behar da interesduna jabetzen dela adostasuna ematen ari dela eta zer neurritan egiten ari zen. Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentarauaren arabera⁽¹⁰⁾, tratamenduaren arduradunak aldeaz aurretik prestatutako adostasun-adierazpenaren eredu bat eskaini behar da; formulazio ulergarri eta eskuragarria, eta hizkera argi eta erraza erabili behar ditu, eta ez du abusuzko klausularik eduki behar. Adostasuna informatua izan dadin, interesdunak gutxienez jakin behar du nor den tratamenduaren arduraduna eta zer helburutarako erabiliko diren datu pertsonal horiek. Adostasuna ez da libreki emandakotzat joko interesdunak benetan libreki aukeratu ez badu, edo ezin badu bere adostasuna ukatu edo kendu kalterik jaso gabe.

Derecho de la Unión o de los Estados miembros a que se refiera el presente Reglamento, incluida la necesidad de cumplir la obligación legal aplicable al responsable del tratamiento o la necesidad de ejecutar un contrato en el que sea parte el interesado o con objeto de tomar medidas a instancia del interesado con anterioridad a la conclusión de un contrato.

(41) Cuando el presente Reglamento hace referencia a una base jurídica o a una medida legislativa, esto no exige necesariamente un acto legislativo adoptado por un parlamento, sin perjuicio de los requisitos de conformidad del ordenamiento constitucional del Estado miembro de que se trate. Sin embargo, dicha base jurídica o medida legislativa debe ser clara y precisa y su aplicación previsible para sus destinatarios, de conformidad con la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (en lo sucesivo, «Tribunal de Justicia») y del Tribunal Europeo de Derechos Humanos.

(42) Cuando el tratamiento se lleva a cabo con el consentimiento del interesado, el responsable del tratamiento debe ser capaz de demostrar que aquel ha dado su consentimiento a la operación de tratamiento. En particular en el contexto de una declaración por escrito efectuada sobre otro asunto, debe haber garantías de que el interesado es consciente del hecho de que da su consentimiento y de la medida en que lo hace. De acuerdo con la Directiva 93/13/CEE del Consejo⁽¹⁰⁾, debe proporcionarse un modelo de declaración de consentimiento elaborado previamente por el responsable del tratamiento con una formulación inteligible y de fácil acceso que emplee un lenguaje claro y sencillo, y que no contenga cláusulas abusivas. Para que el consentimiento sea informado, el interesado debe conocer como mínimo la identidad del responsable del tratamiento y los fines del tratamiento a los cuales están destinados los datos personales. El consentimiento no debe considerarse libremente prestado cuando el interesado no goza de verdadera o libre elección



o no puede denegar o retirar su consentimiento sin sufrir perjuicio alguno.

(43) Adostasuna libreki eman dela bermatzeko, bera ez da datu pertsonalen tratamendurako oinarri juridiko baliioduna izan behar, baldin eta desoreka nabaria bada go interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean, bereziki arduraduna agintaritzza publiko bat bada, eta horregatik gertagaitza denean adostasuna libreki eman izana egoera jakin horretako inguruabar guztietan. Ulertzen da adostasuna ez dela libreki eman baldin eta ezin badira bereizita baimendu datu pertsonalen tratamenduko eragiketak, kasu jakin horretan egokia izan arren, edo adostasuna ematearen mendekoa bada kontratu bat betetzea, zerbitzu bat ematea barne, hori betetzeko adostasuna beharrezkoa izan gabe ere.

(43) Para garantizar que el consentimiento se haya dado libremente, este no debe constituir un fundamento jurídico válido para el tratamiento de datos de carácter personal en un caso concreto en el que exista un desequilibrio claro entre el interesado y el responsable del tratamiento, en particular cuando dicho responsable sea una autoridad pública y sea por lo tanto improbable que el consentimiento se haya dado libremente en todas las circunstancias de dicha situación particular. Se presume que el consentimiento no se ha dado libremente cuando no permita autorizar por separado las distintas operaciones de tratamiento de datos personales pese a ser adecuado en el caso concreto, o cuando el cumplimiento de un contrato, incluida la prestación de un servicio, sea dependiente del consentimiento, aún cuando este no sea necesario para dicho cumplimiento.

(44) Tratamenduak legezkoa izan behar du nahitaezkoa bada kontratu baten edo kontratu bat amaitzeko asmoaren testuinguruan.

(44) El tratamiento debe ser lícito cuando sea necesario en el contexto de un contrato o de la intención de concluir un contrato.

(45) Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legez-eginbehar bat betetzeko edo interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko egiten bada, tratamenduak oinarria izan behar du Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean. Erregelamendu honek ez du eskatzen tratamendu bakoitza arau espezifiko batek eraen dezala. Arau bat oinarri nahikoa izan daiteke datu-tratamenduko zenbait eragiketarako, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion betebehar legal batean oinarrিতa badaude, edo tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. Halaber, tratamenduaren helburua Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera zehaztu beharko da. Horrez gain, arau horrek zehaztu litzake datu pertsonalen tratamenduaren legezotasuna arautzen duten erregelamendu honetako baldintza orokorrak;

(45) Cuando se realice en cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento, o si es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos, el tratamiento debe tener una base en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros. El presente Reglamento no requiere que cada tratamiento individual se rija por una norma específica. Una norma puede ser suficiente como base para varias operaciones de tratamiento de datos basadas en una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento, o si el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos. La finalidad del tratamiento también debe determinarse en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros. Además, dicha norma podría especificar las condiciones



espezifikazioak ezar litzake zehazteko zein den tratamenduaren arduraduna, zein diren tratatu beharreko datu pertsonalak, zein interesdun ukitzen dituen, datu pertsonalak zein erakunderi komunika dakizkiekeen, zer muga dituen helburuak, zer kontserbazio-epe duten datuek eta beste neurri batzuk tratamendu legezko eta fidela bermatzeko. Halaber, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera zehaztu behar da ea interes publikoaren izenean edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzen ari den tratamenduaren arduradunak agintaritza publiko bat izan behar duen edo zuzenbide publikoko beste pertsona fisiko edo juridiko bat izan daitekeen, edo, interes publikoaren izenean egiten bada (barne hartuta osasungintza-helburuak, hala nola osasun publikoa, gizarte-babesa eta osasun-zerbitzuen kudeaketa), zuzenbide pribatukoa, elkarte profesional bat, kasu.

(46) Datu pertsonalen tratamendua legezkozat jo behar da, halaber, interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizitzako funtsezko interesen bat babesteko beharrezkoa denean. Datu pertsonalak, printzipioz, tratamendua beste oinarri juridikoren batean funtsatu ezin denean baino ez dira tratatu behar beste pertsona fisiko baten interes nagusian oinarrituta. Tratamendu mota batzuek interes publikoko arrazoi garrantzitsuei zein interesdunaren interes nagusiari erantzun diezaiekete, hala nola tratamendua helburu humanitarioetarako beharrezkoa denean, epidemiak eta haiek hedatzea kontrolatzea barne, edo larrialdi humanitarioko egoeretan, batez ere hondamendi naturaletan edo giza jatorriko hondamendietan.

(47) Tratamenduaren arduradun baten interes legitimoa, edo datu pertsonalak jakinarazten zaizkion arduradun batena, edo hirugarren batena ere, tratamendurako oinarri juridikoa izan daiteke, interesdunaren interesak edo eskubideak eta askatasunak horren gaitetik ez badaude, kontuan hartuta arduradunarekiko beren harremanean

generales del presente Reglamento por las que se rige la licitud del tratamiento de datos personales, establecer especificaciones para la determinación del responsable del tratamiento, el tipo de datos personales objeto de tratamiento, los interesados afectados, las entidades a las que se pueden comunicar los datos personales, las limitaciones de la finalidad, el plazo de conservación de los datos y otras medidas para garantizar un tratamiento lícito y leal. Debe determinarse también en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros si el responsable del tratamiento que realiza una misión en interés público o en el ejercicio de poderes públicos debe ser una autoridad pública u otra persona física o jurídica de Derecho público, o, cuando se haga en interés público, incluidos fines sanitarios como la salud pública, la protección social y la gestión de los servicios de sanidad, de Derecho privado, como una asociación profesional.

(46) El tratamiento de datos personales también debe considerarse lícito cuando sea necesario para proteger un interés esencial para la vida del interesado o la de otra persona física. En principio, los datos personales únicamente deben tratarse sobre la base del interés vital de otra persona física cuando el tratamiento no pueda basarse manifiestamente en una base jurídica diferente. Ciertos tipos de tratamiento pueden responder tanto a motivos importantes de interés público como a los intereses vitales del interesado, como por ejemplo cuando el tratamiento es necesario para fines humanitarios, incluido el control de epidemias y su propagación, o en situaciones de emergencia humanitaria, sobre todo en caso de catástrofes naturales o de origen humano.

(47) El interés legítimo de un responsable del tratamiento, incluso el de un responsable al que se puedan comunicar datos personales, o de un tercero, puede constituir una base jurídica para el tratamiento, siempre que no prevalezcan los intereses o los derechos y libertades del interesado, teniendo en cuenta las expectativas



oinarrituta interesdunek dituzte arrazoizko itxaropenak. Interes legítimo hori gerta daiteke, adibidez, harreman beharrezko eta egokia dagoenean interesdunaren eta arduradunaren artean, hala nola interesduna arduradunaren bezeroa denean edo haren zerbitzuan dagoenean. Nolanahi ere, interes legítimo bat egoteak zorrotz ebaluatzea eskatuko luke, nahiz eta interesdun batek arrazoiz aurreikus badezake horretarako tratamendua gerta daitekeela, datu pertsonalak bildu diren garaian eta testuinguruan. Bereziki, interesdunaren interesak eta oinarritzko eskubideak tratamenduaren arduradunaren interesen gaitetik egon litezke interesdunak datuen geroagoko tratamendua egiterik arrazoiz espero ez duen egoeretan egiten bada datu pertsonalen tratamendua. Agintaritza publikoek datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa legearen bidez ezartzea legegilearen ardura denez, oinarri juridiko hori ez da aplikatu behar administrazio publikoek beren eginkizunak betetzeko egindako tratamenduari. Iruzurrak prebenitzeko behar den datu pertsonalen ezinbesteko tratamendua ere bada dagokion tratamenduaren arduradunaren interes legítimoa. Zuzeneko marketin helburuetarako egiten den datu pertsonalen tratamendua interes legítimoz egindakotzat jo daiteke.

(48) Enpresa talde baten edo erakunde zentral baten kide diren erakundeen parte diren arduradunek interes legítimoa izan dezakete enpresa taldearen barruan datu pertsonalak transmititzeko, barne helburu administratiboetarako, bezeroen edo langileen datu pertsonalen tratamendua barne. Enpresa talde baten barruan hirugarren herrialde batean kokatutako enpresa bati datu pertsonalak transmititzeari aplikatu beharreko printzipio orokorrek beren horretan jarraituko dute.

razonables de los interesados basadas en su relación con el responsable. Tal interés legítimo podría darse, por ejemplo, cuando existe una relación pertinente y apropiada entre el interesado y el responsable, como en situaciones en las que el interesado es cliente o está al servicio del responsable. En cualquier caso, la existencia de un interés legítimo requeriría una evaluación meticulosa, inclusive si un interesado puede prever de forma razonable, en el momento y en el contexto de la recogida de datos personales, que pueda producirse el tratamiento con tal fin. En particular, los intereses y los derechos fundamentales del interesado podrían prevalecer sobre los intereses del responsable del tratamiento cuando se proceda al tratamiento de los datos personales en circunstancias en las que el interesado no espere razonablemente que se realice un tratamiento ulterior. Dado que corresponde al legislador establecer por ley la base jurídica para el tratamiento de datos personales por parte de las autoridades públicas, esta base jurídica no debe aplicarse al tratamiento efectuado por las autoridades públicas en el ejercicio de sus funciones. El tratamiento de datos de carácter personal estrictamente necesario para la prevención del fraude constituye también un interés legítimo del responsable del tratamiento de que se trate. El tratamiento de datos personales con fines de mercadotecnia directa puede considerarse realizado por interés legítimo.

(48) Los responsables que forman parte de un grupo empresarial o de entidades afiliadas a un organismo central pueden tener un interés legítimo en transmitir datos personales dentro del grupo empresarial para fines administrativos internos, incluido el tratamiento de datos personales de clientes o empleados. Los principios generales aplicables a la transmisión de datos personales, dentro de un grupo empresarial, a una empresa situada en un país tercero no se ven afectados.



(49) Datu pertsonalen tratamenduaren arduradun interesdunaren interes legitimo bat da datu pertsonalak ezinbesteko neurri egokian tratatzea sarearen eta informazioaren segurtasuna bermatzeko (hau da, bermatzea informazio-sistema edo -sare batek konfiantza-maila jakin batean eusteko ahalmena duela gordetako edo transmititutako datu pertsonalen erabilgarritasuna, benetakotasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna konprometitzen dituzten ustekabeko gertaeren edo legez kontrako edo asmo txarreko ekintzen aurrean), eta segurtasuna bermatzeko agintaritzak publikoak, larrialdi informatikoei erantzuteko taldeak (CERT), segurtasun informatikoko gertakariari erantzuteko taldeak (CSIRT), komunikazio sareen eta zerbitzu elektronikoen hornitzaileak eta segurtasun-teknologiaren eta -zerbitzuen hornitzaileak sistema eta sare horien bidez eskaintzen dituzten edo horien bidez eskuragarri diren konektatutako zerbitzuetan. Horren barruan sartu liteke, adibidez, komunikazio elektronikoen sareetarako baimenik gabeko sarbidea eragozteko, kodeen banaketa gaitza saihestea, eta sistema informatikoen eta komunikazio elektronikoen sistemen kontrako «zerbitzu-ukatzeko» erasoak gelditzea eta kalteak murriztea.

(50) Datu pertsonalak jatorriz bildu diren helburuez besteko helburuetarako tratatzea, hasierako helburuekin bateragarria denean baino ez da onartu behar. Hala denean, ez da beste oinarri juridikorik behar, datu pertsonalak lortzea ahalbidetu zuenaz gain. Tratamendua interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko beharrezkoa bada, batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera ezar eta zehaztu daiteke zer zereginetarako eta helburuetarako bateragarritzat eta legezkotzat jo daitekeen geroko tratamendua. Geroko tratamendu-eragiketarako, interes publikoaren izenean artxibatze, ikerketa zientifikorako edo historikorako edo helburu estatistikoetarako egiten badira, legezko tratamendu-eragiketarako bateragarritzat jo behar dira. Batasuneko edo estatu

(49) Constituye un interés legítimo del responsable del tratamiento interesado el tratamiento de datos personales en la medida estrictamente necesaria y proporcionada para garantizar la seguridad de la red y de la información, es decir la capacidad de una red o de un sistema información de resistir, en un nivel determinado de confianza, a acontecimientos accidentales o acciones ilícitas o malintencionadas que comprometan la disponibilidad, autenticidad, integridad y confidencialidad de los datos personales conservados o transmitidos, y la seguridad de los servicios conexos ofrecidos por, o accesibles a través de, estos sistemas y redes, por parte de autoridades públicas, equipos de respuesta a emergencias informáticas (CERT), equipos de respuesta a incidentes de seguridad informática (CSIRT), proveedores de redes y servicios de comunicaciones electrónicas y proveedores de tecnologías y servicios de seguridad. En lo anterior cabría incluir, por ejemplo, impedir el acceso no autorizado a las redes de comunicaciones electrónicas y la distribución malintencionada de códigos, y frenar ataques de «denegación de servicio» y daños a los sistemas informáticos y de comunicaciones electrónicas.

(50) El tratamiento de datos personales con fines distintos de aquellos para los que hayan sido recogidos inicialmente solo debe permitirse cuando sea compatible con los fines de su recogida inicial. En tal caso, no se requiere una base jurídica aparte, distinta de la que permitió la obtención de los datos personales. Si el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento, los cometidos y los fines para los cuales se debe considerar compatible y lícito el tratamiento ulterior se pueden determinar y especificar de acuerdo con el Derecho de la Unión o de los Estados miembros. Las operaciones de tratamiento ulterior con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica e histórica o



kideetako zuzenbidean datu pertsonalen tratamendurako ezarritako oinarri juridikoa geroko tratamendurako oinarri juridikoa ere izan daiteke. Geroko tratamendua datu pertsonalen hasierako bilketaren helburuarekin bateragarria den ala ez zehazteko, tratamenduaren arduradunak, jatorrizko tratamendurako legezkontasunerako betekizun guztiak bete ondoren, honako alderdi hauek hartu behar ditu kontuan, besteak beste: helburu horien eta aurreikusitako geroko tratamenduaren helburuen arteko edozein lotura; datuak bildu ziren testuingurua, bereziki interesdunak arduradunarekiko harremanetan oinarrituta geroko tratamenduaz dituen arazoizko itxaropenak; nolako datu pertsonalak diren; aurreikusitako geroko tratamenduak zer ondorio ekarriko dizkien interesdunei; eta ea behar adinako bermerik dagoen jatorrizko tratamendu-eragiketan zein aurreikusitako geroko tratamendu-eragiketan.

Interesdunak adostasuna eman bazuen edo tratamendua oinarrituta badago Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean eta gizarte demokratiko batean bereziki interes publiko orokorreko helburu garrantzitsuak babesteko neurriko eta beharrezkoa den neurria bada, arduradunak ahalmena eduki behar du datu pertsonalen geroko tratamendua egiteko, helburuak bateragarriak izan zein ez. Nolanahi ere, bermatu behar da erregelamendu honetan ezarritako printzipioak aplikatzen direla, bereziki, interesdunari jakinaraztea beste helburu horiek eta bere eskubideak, aurka egiteko eskubidea barne. Tratamenduaren arduradunak balizko delitu-egintzarik edo segurtasun publikorako mehatxurik dagoela ohartaraztea eta delitu-egintza edo segurtasun publikorako mehatxu batekin loturiko banakako datuak edo zenbaiten datuak agintaritza eskudunari transmititzea interes legitimotzat jo behar da. Hala ere, arduradunaren interes legitimoko transmisio hori edo datu pertsonalen geroko tratamendua debekatu daitezke, baldin eta

finés estadísticos deben considerarse operaciones de tratamiento lícitas compatibles. La base jurídica establecida en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros para el tratamiento de datos personales también puede servir de base jurídica para el tratamiento ulterior. Con objeto de determinar si el fin del tratamiento ulterior es compatible con el fin de la recogida inicial de los datos personales, el responsable del tratamiento, tras haber cumplido todos los requisitos para la licitud del tratamiento original, debe tener en cuenta, entre otras cosas, cualquier relación entre estos fines y los fines del tratamiento ulterior previsto, el contexto en el que se recogieron los datos, en particular las expectativas razonables del interesado basadas en su relación con el responsable en cuanto a su uso posterior, la naturaleza de los datos personales, las consecuencias para los interesados del tratamiento ulterior previsto y la existencia de garantías adecuadas tanto en la operación de tratamiento original como en la operación de tratamiento ulterior prevista.

Si el interesado dio su consentimiento o el tratamiento se basa en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que constituye una medida necesaria y proporcionada en una sociedad democrática para salvaguardar, en particular, objetivos importantes de interés público general, el responsable debe estar facultado para el tratamiento ulterior de los datos personales, con independencia de la compatibilidad de los fines. En todo caso, se debe garantizar la aplicación de los principios establecidos por el presente Reglamento y, en particular, la información del interesado sobre esos otros fines y sobre sus derechos, incluido el derecho de oposición. La indicación de posibles actos delictivos o amenazas para la seguridad pública por parte del responsable del tratamiento y la transmisión a la autoridad competente de los datos respecto de casos individuales o casos diversos relacionados con un mismo acto delictivo o amenaza para la seguridad pública debe considerarse que es en interés legítimo del



tratamendua bateragarri ez bada legezko sekreturako, sekretu profesionalerako edo beste zenbaitengatik lotesle den betebeharrarekin.

(51) Babes berezia eman behar zaie beren nolakotasunagatik oinarritzko eskubide eta askatasunei dagokienez bereziki babestutako datuak direnekin, haien tratamenduaren testuinguruan arrisku handiak egon balitezke funtsezko eskubide eta askatasunetarako. Bereziki babestutako datu horien barruan sartu behar dira arraza- eta etnia-jatorria agerian utz dezaketenak; betiere, kontuan hartuta erregelamendu honetan «arraza-jatorria» terminoa erabiltzeak ez duela adierazten Batasunak onartzen duenik giza arraza bereziak daudela ezartzen saiatzen den inongo teoriarik. Argazkien tratamendua ez da sistematikoki hartu behar datu pertsonalen kategoria berezien tratamendutzat, datu biometrikoen definizioan bakarrik sartzen baitira baldin eta pertsona fisiko baten identifikazio edo autentifikatze unibokoa ahalbidetzen badute bide tekniko espezifikoekin tratatzean. Datu pertsonal horiek ez dira tratatu behar, salbu eta erregelamendu honetan xedatutako egoera espezifikoetan baimentzen bada, kontuan hartuta estatu kideek datuen babesari buruzko xedapen espezifikoak ezarri ahal izango dituztela erregelamendu honetako arauen aplikazioa egokitzeko lege-eginbehar bat betetzera edo interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzera. Tratamendu honen eskakizun espezifikoek gain, erregelamendu honen printzipio orokorrak eta gainerako arauak aplikatu behar dira, batez ere tratamenduaren legezotasun-baldintzei dagokienez. Datu pertsonalen kategoria berezi horien tratamendurako debeku orokorrerako salbuespenak esplizituki ezarri behar dira, besteak beste, interesdunak bere adostasun esplizitua ematen duenean edo beharizan zehatz jakin batzuen kasuan, bereziki tratamendua legezko jardueren esparruan egiten

responsable. Con todo, debe prohibirse esa transmisión en interés legítimo del responsable o el tratamiento ulterior de datos personales si el tratamiento no es compatible con una obligación de secreto legal, profesional o vinculante por otro concepto.

(51) Especial protección merecen los datos personales que, por su naturaleza, son particularmente sensibles en relación con los derechos y las libertades fundamentales, ya que el contexto de su tratamiento podría entrañar importantes riesgos para los derechos y las libertades fundamentales. Debe incluirse entre tales datos personales los datos de carácter personal que revelen el origen racial o étnico, entendiéndose que el uso del término «origen racial» en el presente Reglamento no implica la aceptación por parte de la Unión de teorías que traten de determinar la existencia de razas humanas separadas. El tratamiento de fotografías no debe considerarse sistemáticamente tratamiento de categorías especiales de datos personales, pues únicamente se encuentran comprendidas en la definición de datos biométricos cuando el hecho de ser tratadas con medios técnicos específicos permita la identificación o la autenticación unívocas de una persona física. Tales datos personales no deben ser tratados, a menos que se permita su tratamiento en situaciones específicas contempladas en el presente Reglamento, habida cuenta de que los Estados miembros pueden establecer disposiciones específicas sobre protección de datos con objeto de adaptar la aplicación de las normas del presente Reglamento al cumplimiento de una obligación legal o al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Además de los requisitos específicos de ese tratamiento, deben aplicarse los principios generales y otras normas del presente Reglamento, sobre todo en lo que se refiere a las condiciones de licitud del tratamiento. Se deben establecer de forma explícita excepciones a la



badute oinarrizko askatasunak baliatzea helburu duten elkarte edo fundazioek.

(52) Halaber, datu pertsonalen kategoría bereziak tratatzeko debekuaren salbuespenak baimendu behar dira Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak hala ezartzen duenean, betiere berme egokiak emanda datu pertsonalak eta beste oinarrizko eskubide batzuk babesteko, baldin eta interes publikoaren izenean bada datu pertsonalen tratamendua, bereziki lan-arloko legeriaren esparruan, gizarte-babesari buruzko legeriaren esparruan, pentsioak barne, eta osasun arloko segurtasunerako, ikuskapenerako eta alerarako edo gaixotasun kutsakorren edo osasunerako beste mehatxu larrien prebentziorako edo kontrolerako. Salbuespen hori egin daiteke osasunaren esparruko helburuetarako, osasun-sistema publikoa eta osasun-laguntzako zerbitzuen kudeaketa barne, bereziki gaixotasun-aseguruen erregimeneko zerbitzu eta prestazioen erreklamazioak ebazteko erabiltzen diren prozeduren kalitatea eta errentagarritasuna bermatzeko, edo interes publikoaren izenean artxibatze, ikerketa zientifiko edo historikorako edo estatistika helbururako. Orobat, salbuespen gisa baimendu behar da datu pertsonal horien tratamendua, baldin eta beharrezkoa bada erreklamazioak formulatzeko, gauzatzeko edo horietatik babesteko, prozedura judizialen, administrazio-prozeduren zein prozedura estrajudizialen kasuetan.

(53) Babes handiena eduki behar duten datu pertsonalen kategoría bereziak bakarrik tratatu daitezke osasunarekin lotutako helburuekin, baldin eta beharrezkoa bada helburu horiek lortzeko

prohibición general de tratamiento de esas categorías especiales de datos personales, entre otras cosas cuando el interesado dé su consentimiento explícito o tratándose de necesidades específicas, en particular cuando el tratamiento sea realizado en el marco de actividades legítimas por determinadas asociaciones o fundaciones cuyo objetivo sea permitir el ejercicio de las libertades fundamentales.

(52) Asimismo deben autorizarse excepciones a la prohibición de tratar categorías especiales de datos personales cuando lo establezca el Derecho de la Unión o de los Estados miembros y siempre que se den las garantías apropiadas, a fin de proteger datos personales y otros derechos fundamentales, cuando sea en interés público, en particular el tratamiento de datos personales en el ámbito de la legislación laboral, la legislación sobre protección social, incluidas las pensiones y con fines de seguridad, supervisión y alerta sanitaria, la prevención o control de enfermedades transmisibles y otras amenazas graves para la salud. Tal excepción es posible para fines en el ámbito de la salud, incluidas la sanidad pública y la gestión de los servicios de asistencia sanitaria, especialmente con el fin de garantizar la calidad y la rentabilidad de los procedimientos utilizados para resolver las reclamaciones de prestaciones y de servicios en el régimen del seguro de enfermedad, o con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica e histórica o fines estadísticos. Debe autorizarse asimismo a título excepcional el tratamiento de dichos datos personales cuando sea necesario para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones, ya sea por un procedimiento judicial o un procedimiento administrativo o extrajudicial.

(53) Las categorías especiales de datos personales que merecen mayor protección únicamente deben tratarse con fines relacionados con la salud cuando sea necesario para lograr



- d) Beste tratamendu-eragile batengana jotzeko 2. eta 4. zerbaitetan adierazitako eskakizunak errespetatuko ditu.
- e) Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzako bitartez, III. kapituluaren ezarritako interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.
- f) Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari 32.etik 36.era bitarteko artikulua betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.
- g) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren araberako, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopiak ezabatuko ditu, noiz eta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak kontserbatzea eskatzen.
- h) Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.
- b) garantizará que las personas autorizadas para tratar datos personales se hayan comprometido a respetar la confidencialidad o estén sujetas a una obligación de confidencialidad de naturaleza estatutaria;
- c) tomará todas las medidas necesarias de conformidad con el artículo 32;
- d) respetará las condiciones indicadas en los apartados 2 y 4 para recurrir a otro encargado del tratamiento;
- e) asistirá al responsable, teniendo cuenta la naturaleza del tratamiento, a través de medidas técnicas y organizativas apropiadas, siempre que sea posible, para que este pueda cumplir con su obligación de responder a las solicitudes que tengan por objeto el ejercicio de los derechos de los interesados establecidos en el capítulo III;
- f) ayudará al responsable a garantizar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en los artículos 32 a 36, teniendo en cuenta la naturaleza del tratamiento y la información a disposición del encargado;
- g) a elección del responsable, suprimirá o devolverá todos los datos personales una vez finalice la prestación de los servicios de tratamiento, y suprimirá las copias existentes a menos que se requiera la conservación de los datos personales en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros;
- h) pondrá a disposición del responsable toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente artículo, así como para permitir y contribuir a la realización de auditorías, incluidas inspecciones, por parte del responsable o de otro auditor autorizado por dicho responsable.



Lehenengo paragrafoko h) letran xedatutakoa dela-eta, tratamendu-eragileak berehala ipiniko du jakinaren gainean arduraduna baldin eta, beraren aburuz, instrukzio batek erregelamendu hau edo datu-babesaren alorreko Batasunaren edo estatu kideen beste xedapenik urratzen badu.

4. Tratamendu-eragileak beste eragile batengana jotzen badu arduradunaren kontura halako jarduera jakin batzuk aurrera eramateko, 3. zenbakian arduradunaren eta eragilearen artean xedatutako datu-babesari buruzko betebeharrak ezarriko zaizkio bigarren eragile horri, kontratu bidez edo Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen araberrako beste egintza juridiko baten bidez, bereziki arazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatzeko bermeak eskaintzea, tratamendua erregelamendu honetako xedapenekin bat etor dadin. Bigarren eragile horrek ez baditu datu-babesari buruzko bere eginbeharrak betetzen, hasierako eragilearena jarraituko du izaten oso-oso erantzukizunak arduradunaren aurrean, bigarren eragilearen eginbeharrak betetzeari dagokionez.

5. Tratamenduaren arduraduna erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz onartutako jokabide-kode bati atxikitzea edo 42. artikuluari jarraituz onartutako ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izan daiteke artikuluko 1. eta 4. zenbakietako bermeak betetzen dituela frogatzeko.

6. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak beren artean banakako kontratu bat egitea eragotzi gabe, artikuluko 7. eta 8. artikuluetako kontratuarentako klausula-ereduetan oinarritu ahal izango da, oso-oso edo partez, artikuluko 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa; baita 42. eta 43. artikuluei jarraituz tratamenduaren arduradunari edo eragileari emandako ziurtapen baten zati

En relación con lo dispuesto en la letra h) del párrafo primero, el encargado informará inmediatamente al responsable si, en su opinión, una instrucción infringe el presente Reglamento u otras disposiciones en materia de protección de datos de la Unión o de los Estados miembros.

4. Cuando un encargado del tratamiento recurra a otro encargado para llevar a cabo determinadas actividades de tratamiento por cuenta del responsable, se impondrán a este otro encargado, mediante contrato u otro acto jurídico establecido con arreglo al Derecho de la Unión o de los Estados miembros, las mismas obligaciones de protección de datos que las estipuladas en el contrato u otro acto jurídico entre el responsable y el encargado a que se refiere el apartado 3, en particular la prestación de garantías suficientes de aplicación de medidas técnicas y organizativas apropiadas de manera que el tratamiento sea conforme con las disposiciones del presente Reglamento. Si ese otro encargado incumple sus obligaciones de protección de datos, el encargado inicial seguirá siendo plenamente responsable ante el responsable del tratamiento por lo que respecta al cumplimiento de las obligaciones del otro encargado.

5. La adhesión del encargado del tratamiento a un código de conducta aprobado a tenor del artículo 40 o a un mecanismo de certificación aprobado a tenor del artículo 42 podrá utilizarse como elemento para demostrar la existencia de las garantías suficientes a que se refieren los apartados 1 y 4 del presente artículo.

6. Sin perjuicio de que el responsable y el encargado del tratamiento celebren un contrato individual, el contrato u otro acto jurídico a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo podrá basarse, total o parcialmente, en las cláusulas contractuales tipo a que se refieren los apartados 7 y 8 del presente artículo, inclusive cuando formen parte de una certificación concedida al responsable o



direnean ere.

7. Batzordeak kontratueterako klausula-ereduak finkatu ahal izango ditu artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gaiei begira, 93.2 artikuluan adierazitako azterketa-prozeduraren arabera.

8. Kontrol-agintaritzak batek kontratueterako klausula-ereduak finkatu ahal izango ditu artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren gaiei begira, 63. artikuluan adierazitako koherentzia-mekanismoen arabera.

9. Artikuluko honetako 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den kontratu edo bestelako egintza juridikoa idatziz jasoko da, baita formatu elektronikoa ere.

10. Artikuluko honetako 82., 83. eta 84. artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, tratamendu-eragile batek tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituen erregelamendu hau urratzen badu, tratamendu horren arduraduntzat joko da.

29. artikulua

Tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen agindupeko tratamendua

Tratamendu-eragileak eta datu pertsonalak irispidean dituen eta arduradunaren edo eragilearen agindupean diharduen edozein pertsonak ezingo ditu datuok tratatu, arduradunaren jarraibideei kasu eginez baino, noiz eta ez dagoen horretara behartuta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez.

30. artikulua

Tratamendu-jardueren erregistroa

1. Tratamenduaren arduradun bakoitzak eta, halakorik badago, arduradun horren ordezkariak

encargado de conformidad con los artículos 42 y 43.

7. La Comisión podrá fijar cláusulas contractuales tipo para los asuntos a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo, de acuerdo con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 93, apartado 2.

8. Una autoridad de control podrá adoptar cláusulas contractuales tipo para los asuntos a que se refieren los apartados 3 y 4 del presente artículo, de acuerdo con el mecanismo de coherencia a que se refiere el artículo 63.

9. El contrato u otro acto jurídico a que se refieren los apartados 3 y 4 constará por escrito, inclusive en formato electrónico.

10. Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 82, 83 y 84, si un encargado del tratamiento infringe el presente Reglamento al determinar los fines y medios del tratamiento, será considerado responsable del tratamiento con respecto a dicho tratamiento.

Artículo 29

Tratamiento bajo la autoridad del responsable o del encargado del tratamiento

El encargado del tratamiento y cualquier persona que actúe bajo la autoridad del responsable o del encargado y tenga acceso a datos personales solo podrán tratar dichos datos siguiendo instrucciones del responsable, a no ser que estén obligados a ello en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros.

Artículo 30

Registro de las actividades de tratamiento

1. Cada responsable y, en su caso, su representante llevarán un registro de las



beren ardurapean egindako tratamendu-jardueren erregistro bat eramango dute. Erregistro horrek informazio hau guztia jasoko du:

actividades de tratamiento efectuadas bajo su responsabilidad. Dicho registro deberá contener toda la información indicada a continuación:

- | | |
|--|--|
| a) Tratamenduaren arduradunaren izena eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, erantzukidearenak, arduradunaren ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak. | a) el nombre y los datos de contacto del responsable y, en su caso, del corresponsable, del representante del responsable, y del delegado de protección de datos; |
| b) Tratamenduaren helburuak. | b) los fines del tratamiento; |
| c) Interesdun-kategorien eta datu pertsonalen kategorien deskribapena. | c) una descripción de las categorías de interesados y de las categorías de datos personales; |
| d) Datu pertsonalak zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, baita hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak direnean ere; | d) las categorías de destinatarios a quienes se comunicaron o comunicarán los datos personales, incluidos los destinatarios en terceros países u organizaciones internacionales; |
| e) Halakorik badago, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialde horren edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1 artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa. | e) en su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país o una organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, la documentación de garantías adecuadas; |
| f) Ahal bada, datu-kategoriak ezerezteko aurreikusitako epeak. | f) cuando sea posible, los plazos previstos para la supresión de las diferentes categorías de datos; |
| g) Ahal bada, 32.1 artikuluan aipaturiko segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoak deskribapen orokorra. | g) cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 32, apartado 1. |

2. Eragile bakoitzak eta, halakorik badago, eragile horren ordezkariak tratamenduaren arduradun baten kontura egindako tratamendu-jardueren kategorien erregistro bat eramango dute, zeinak hauek jasoko baititu:

2. Cada encargado y, en su caso, el representante del encargado, llevará un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas por cuenta de un responsable que contenga:

- | | |
|--|--|
| a) Eragilearen edo eragileen izena eta | a) el nombre y los datos de contacto del |
|--|--|



harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzarenak ere, eta halaber, halakorik badago, arduradunaren edo eragilearen ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.

- b) Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- c) Halakorik badago, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialde horren edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1 artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.
- d) Ahal bada, 32.1 artikuluan aipaturiko segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoak deskribapen orokorra.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren erregistroak idatziz egingo dira, baita formatu elektronikoa ere.

4. Hala eskatzen duen kontrol-agintaritzaren esku jarriko du erregistroa tratamenduaren arduradunak edo eragileak eta, halakorik badago, arduradunaren edo eragilearen ordezkariak.

5. Artikulu honetako 1. eta 2. zenbakietako eskakizunak ez zaizkie aplikatuko 250 lagun baino gutxiago dituzten enpresa edo erakundeei, salbu eta tratamenduak arriskurik ekar badezake interesdunen eskubide eta askatasunetarako, ez bada noizbehinkakoa edo 9.1 artikuluan adierazitako datu-kategoria bereziak baditu edo 10. artikuluan aipaturiko kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalak baditu.

31. artikulua

encargado o encargados y de cada responsable por cuenta del cual actúe el encargado, y, en su caso, del representante del responsable o del encargado, y del delegado de protección de datos;

- b) las categorías de tratamientos efectuados por cuenta de cada responsable;
- c) en su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país u organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, la documentación de garantías adecuadas;
- d) cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 30, apartado 1.

3. Los registros a que se refieren los apartados 1 y 2 constarán por escrito, inclusive en formato electrónico.

4. El responsable o el encargado del tratamiento y, en su caso, el representante del responsable o del encargado pondrán el registro a disposición de la autoridad de control que lo solicite.

5. Las obligaciones indicadas en los apartados 1 y 2 no se aplicarán a ninguna empresa ni organización que emplee a menos de 250 personas, a menos que el tratamiento que realice pueda entrañar un riesgo para los derechos y libertades de los interesados, no sea ocasional, o incluya categorías especiales de datos personales indicadas en el artículo 9, apartado 1, o datos personales relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10.

Artículo 31



Lankidetzaren kontrol-agintaritzarekin

Tratamenduaren arduradunak eta eragileak eta, halakorik badago, haien ordezkariak lankidetzaren jardungo dute kontrol-agintaritzarekin beren eginkizunak betetzen dituztenean.

2. atala

Datu pertsonalen segurtasuna

32. artikulua

Tratamenduaren segurtasuna

1. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak, kontuan hartuta eskura dagoen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrisku horri aurre egiteko adinako arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituzte; besteak beste, hauek:

- a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
- b) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
- c) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.
- d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.

2. Segurtasun-mailaren egokitasuna ebaluatzean, kontuan hartuko dira bereziki datu-tratamenduak izan ditzakeen arriskuak; batez ere,

Cooperación con la autoridad de control

El responsable y el encargado del tratamiento y, en su caso, sus representantes cooperarán con la autoridad de control que lo solicite en el desempeño de sus funciones.

Sección 2

Seguridad de los datos personales

Artículo 32

Seguridad del tratamiento

1. Teniendo en cuenta el estado de la técnica, los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, así como riesgos de probabilidad y gravedad variables para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable y el encargado del tratamiento aplicarán medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo, que en su caso incluya, entre otros:

- a) la seudonimización y el cifrado de datos personales;
- b) la capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento;
- c) la capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida en caso de incidente físico o técnico;
- d) un proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

2. Al evaluar la adecuación del nivel de seguridad se tendrán particularmente en cuenta los riesgos que presente el tratamiento de datos,



transmitituko, kontserbatutako edo beste moduren batez tratatutako datu pertsonalak ustekabeen edo legez kontra suntsitzeak, galtzeak edo aldatzeak, edo baimenik gabe datuok lagatzeak edo irispidean izateak dakartzanak.

3. Erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz onartutako jokabide-kode bati atxikitzea edo 42. artikuluari jarraituz onartutako ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izango da artikuluko honetako 1. zenbakiko eginbeharrak betetzen dituela frogatzeko.

4. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak behar diren neurriak hartuko dituzte datu pertsonalak irispidean dituen eta arduradunaren edo eragilearen agindupean diharduen edozein pertsonak datu horiek ez tratatzeko, arduradunaren jarraibideei kasu eginez baina, noiz eta ez dagoen horretara behartuta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez.

33. artikulua

Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa kontrol-agintaritzari komunikatzea

1. Datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, horren berri emango dio tratamenduaren arduradunak 55. artikulua araberako eskudun den kontrol-agintaritzari, atzerapen bidegaberik gabe eta, ahal bada, urraketa berri jaso eta 72 ordu baino lehen, salbu eta segurtasunaren urraketa horrek pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arriskurik ekartzea aski gertagaitza izaten bada. Jakinarazpena ezin bada 72 ordu baino lehenago egin, atzerapen horren arrazoiak erantsi beharko zaizkio.

2. Jakiten dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak jakinaraziko dizkio

en particular como consecuencia de la destrucción, pérdida o alteración accidental o ilícita de datos personales transmitidos, conservados o tratados de otra forma, o la comunicación o acceso no autorizados a dichos datos.

3. La adhesión a un código de conducta aprobado a tenor del artículo 40 o a un mecanismo de certificación aprobado a tenor del artículo 42 podrá servir de elemento para demostrar el cumplimiento de los requisitos establecidos en el apartado 1 del presente artículo.

4. El responsable y el encargado del tratamiento tomarán medidas para garantizar que cualquier persona que actúe bajo la autoridad del responsable o del encargado y tenga acceso a datos personales solo pueda tratar dichos datos siguiendo instrucciones del responsable, salvo que esté obligada a ello en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros.

Artículo 33

Notificación de una violación de la seguridad de los datos personales a la autoridad de control

1. En caso de violación de la seguridad de los datos personales, el responsable del tratamiento la notificará a la autoridad de control competente de conformidad con el artículo 55 sin dilación indebida y, de ser posible, a más tardar 72 horas después de que haya tenido constancia de ella, a menos que sea improbable que dicha violación de la seguridad constituya un riesgo para los derechos y las libertades de las personas físicas. Si la notificación a la autoridad de control no tiene lugar en el plazo de 72 horas, deberá ir acompañada de indicación de los motivos de la dilación.

2. El encargado del tratamiento notificará sin dilación indebida al responsable del tratamiento



tratamendu-eragileak arduradunari, atzerapen bidegaberik gabe.

3. Aurreko 1. zenbakiko jakinarazpenak honako hauek jaso behar ditu, gutxienez:

- a) Datu pertsonalen urraketaren nolakotasuna deskribatzea, bai eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua eta eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua.
- b) Datuak babesteko ordezkararen izena eta harremanetarako datuak komunikatzea, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.
- c) Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak deskribatzea.
- d) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen neurriak deskribatzea; neurri horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak.

4. Informazio guztia batera ematea ezinezkoa bada, eta ezintasun horren neurrian, informazioa mailaka emango da, atzerapen bidegaberik gabe.

5. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasunaren urraketa oro dokumentatuko du, baita urraketarekin loturiko gertaerak ere, eta halaber beraren ondorioak eta hartu diren neurri zuzentzaileak. Dokumentazio horrek bidea emango dio kontrol-agintaritzari artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

34. artikulua

Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa

las violaciones de la seguridad de los datos personales de las que tenga conocimiento.

3. La notificación contemplada en el apartado 1 deberá, como mínimo:

- a) describir la naturaleza de la violación de la seguridad de los datos personales, inclusive, cuando sea posible, las categorías y el número aproximado de interesados afectados, y las categorías y el número aproximado de registros de datos personales afectados;
- b) comunicar el nombre y los datos de contacto del delegado de protección de datos o de otro punto de contacto en el que pueda obtenerse más información;
- c) describir las posibles consecuencias de la violación de la seguridad de los datos personales;
- d) describir las medidas adoptadas o propuestas por el responsable del tratamiento para poner remedio a la violación de la seguridad de los datos personales, incluyendo, si procede, las medidas adoptadas para mitigar los posibles efectos negativos.

4. Si no fuera posible facilitar la información simultáneamente, y en la medida en que no lo sea, la información se facilitará de manera gradual sin dilación indebida.

5. El responsable del tratamiento documentará cualquier violación de la seguridad de los datos personales, incluidos los hechos relacionados con ella, sus efectos y las medidas correctivas adoptadas. Dicha documentación permitirá a la autoridad de control verificar el cumplimiento de lo dispuesto en el presente artículo.

Artículo 34

Comunicación de una violación de la



interesdunari komunikatzea

1. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketak arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei, horren komunikazioa bidaliko dio interesdunari tratamenduaren arduradunak, atzerapen bidegaberik gabe.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiko komunikazioak datu pertsonalen segurtasunaren urraketa deskribatuko du, hizkera argia eta erraza erabilita, eta deskribapenean 33.3 artikuluko b), c) eta d) letretako informazioa eta neurriak jasoko dira, gutxienez.

3. Interesdunari ez zaio 1. zenbakiko komunikazioa bidali beharko, baldin eta baldintza hauetako bat betetzen bada:

- a) Tratamenduaren arduradunak arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartu ditu eta neurri horiek datu pertsonalen segurtasunaren urraketa jasan duten datu pertsonalei aplikatu zaizkie, bereziki datu pertsonalak irispidean izateko baimenik ez duten pertsonen datuok ez ulertzeko moduko neurriak: zifratua, esaterako.
- b) Tratamenduaren arduradunak gerora neurriak hartu ditu, bermatzeko dagoeneko ez dagoela aukerarik interesdunaren eskubide eta askatasunetarako 1. zenbakian aipatzen den arriskua gauzatu dadin.
- c) Neurritz kanpoko ahalegina eskatzen du. Kasu horretan, horren ordez komunikazio publiko bat edo antzeko neurriren bat aukeratuko da, zeinaren bitartez interesdunak eraginkortasun berberaz jakitun ipiniko baitira.

4. Tratamenduaren arduradunak interesdunari oraindik komunikatu ez badio datu pertsonalen segurtasunaren urraketa, kontrol-agintaritzak, behin aztertu ondoren urraketak zenbateraino ekar

seguridad de los datos personales al interesado

1. Cuando sea probable que la violación de la seguridad de los datos personales entrañe un alto riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable del tratamiento la comunicará al interesado sin dilación indebida.

2. La comunicación al interesado contemplada en el apartado 1 del presente artículo describirá en un lenguaje claro y sencillo la naturaleza de la violación de la seguridad de los datos personales y contendrá como mínimo la información y las medidas a que se refiere el artículo 33, apartado 3, letras b), c) y d).

3. La comunicación al interesado a que se refiere el apartado 1 no será necesaria si se cumple alguna de las condiciones siguientes:

- a) el responsable del tratamiento ha adoptado medidas de protección técnicas y organizativas apropiadas y estas medidas se han aplicado a los datos personales afectados por la violación de la seguridad de los datos personales, en particular aquellas que hagan ininteligibles los datos personales para cualquier persona que no esté autorizada a acceder a ellos, como el cifrado;
- b) el responsable del tratamiento ha tomado medidas ulteriores que garanticen que ya no exista la probabilidad de que se concrete el alto riesgo para los derechos y libertades del interesado a que se refiere el apartado 1;
- c) suponga un esfuerzo desproporcionado. En este caso, se optará en su lugar por una comunicación pública o una medida semejante por la que se informe de manera igualmente efectiva a los interesados.

4. Cuando el responsable todavía no haya comunicado al interesado la violación de la seguridad de los datos personales, la autoridad de control, una vez considerada la probabilidad de



dezakeen arrisku handi bat, komunikazioa egiteko agindu ahal izango dio edo 3. zenbakian aipatutako baldintzetako bat betetzen dela erabaki ahalko du.

3. atala

Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa eta aurretiko kontsulta

35. artikulua

Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa

1. Tratamendu-motaren batek, batez ere teknologia berriak erabiltzen baditu, izaera, irismena, testuingurua edo helburuak direla-eta arrisku handia ekar badiezaieke pertsona fisikoen eskubide eta askatasunei, tratamenduko eragiketek datu pertsonalen babesean izan dezaketen eraginari buruzko ebaluazioa egingo du tratamenduaren arduradunak, tratamenduaren aurretik. Ebaluazio bakar batek arrisku handi antzekoak ekar ditzaketen tratamendu-eragiketa antzekoen sorta bati ekin ahal izango dio.

2. Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiten duenean, datuak babesteko ordezkariaren aholkularitza eskatuko du tratamenduaren arduradunak, ordezkari hori izendatuta badago.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa kasu hauetan eskatuko da, batez ere:

- a) Pertsona fisikoen alderdi pertsonalak aztertzen dituen eta tratamendu automatizatu batean oinarrituta dagoen ebaluazio sistematiko eta zehatza, profilak egitea adibidez, zeina oinarri hartuta pertsona fisikoentzako ondorio juridikoak dituzten erabakiak hartzen baitira edo antzerako eragin esanguratsuak sortzen baitira.

que tal violación entrañe un alto riesgo, podrá exigirle que lo haga o podrá decidir que se cumple alguna de las condiciones mencionadas en el apartado 3.

Sección 3

Evaluación de impacto relativa a la protección de datos y consulta previa

Artículo 35

Evaluación de impacto relativa a la protección de datos

1. Cuando sea probable que un tipo de tratamiento, en particular si utiliza nuevas tecnologías, por su naturaleza, alcance, contexto o fines, entrañe un alto riesgo para los derechos y libertades de las personas físicas, el responsable del tratamiento realizará, antes del tratamiento, una evaluación del impacto de las operaciones de tratamiento en la protección de datos personales. Una única evaluación podrá abordar una serie de operaciones de tratamiento similares que entrañen altos riesgos similares.

2. El responsable del tratamiento recabará el asesoramiento del delegado de protección de datos, si ha sido nombrado, al realizar la evaluación de impacto relativa a la protección de datos.

3. La evaluación de impacto relativa a la protección de los datos a que se refiere el apartado 1 se requerirá en particular en caso de:

- a) evaluación sistemática y exhaustiva de aspectos personales de personas físicas que se base en un tratamiento automatizado, como la elaboración de perfiles, y sobre cuya base se tomen decisiones que produzcan efectos jurídicos para las personas físicas o que les afecten significativamente de modo similar;



- b) Erregelamendu honetako 9.1 artikuluan aipatzen diren datu-kategoria berezien eskala handiko tratamendua edo 10. artikuluan aipatzen diren kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamenduak.
- c) Sarbide publikoa duen zonalde baten behaketa sistematikoa, eskala handian.
4. Artikulu honetako 1. zenbakiaren arabera datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa behar duten tratamendu-eragiketen zerrenda finkatu eta argitaratuko du kontrol-agintaritzak. Kontrol-agintaritzak 68. artikuluan aipatzen den lantaldeari jakinaraziko dizkio zerrenda horiek.
5. Kontrol-agintaritzak, halaber, datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluaziorik behar ez duten tratamendu-eragiketen zerrenda finkatu eta argitaratu ahal izango du. Kontrol-agintaritzak Batzordeari jakinaraziko dizkio zerrenda horiek.
6. Artikulu honetako 4. eta 5. zenbakietan aipatzen diren zerrendak finkatu baino lehen, 63. artikuluan adierazten den koherentzia-mekanismoa aplikatuko du kontrol-agintaritzak baldin eta zerrenda horietan badago interesdunei ondasun edo zerbitzuak eskaintzearekin edo interesdunen jokabidea estatu kide zenbaitetan behatzearekin loturiko tratamendu-jarduerarik, edo Batasunaren barruko datu-pertsonalen zirkulazio askeari eragin diezaiokeen tratamendu-jarduerarik.
7. Ebaluazioak hauek jasoko ditu, gutxienez:
- a) Aurreikusitako tratamendu-eragiketen eta tratamenduaren helburuen deskribapen sistematikoa, bai eta, hala badagokio, tratamenduaren arduradunak bilatzen duen interes legitimoa ere.
- b) Tratamendu-eragiketek beren helburuei begira
- b) tratamiento a gran escala de las categorías especiales de datos a que se refiere el artículo 9, apartado 1, o de los datos personales relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10, o
- c) observación sistemática a gran escala de una zona de acceso público.
4. La autoridad de control establecerá y publicará una lista de los tipos de operaciones de tratamiento que requieran una evaluación de impacto relativa a la protección de datos de conformidad con el apartado 1. La autoridad de control comunicará esas listas al Comité a que se refiere el artículo 68.
5. La autoridad de control podrá asimismo establecer y publicar la lista de los tipos de tratamiento que no requieren evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos. La autoridad de control comunicará esas listas al Comité.
6. Antes de adoptar las listas a que se refieren los apartados 4 y 5, la autoridad de control competente aplicará el mecanismo de coherencia contemplado en el artículo 63 si esas listas incluyen actividades de tratamiento que guarden relación con la oferta de bienes o servicios a interesados o con la observación del comportamiento de estos en varios Estados miembros, o actividades de tratamiento que puedan afectar sustancialmente a la libre circulación de datos personales en la Unión.
7. La evaluación deberá incluir como mínimo:
- a) una descripción sistemática de las operaciones de tratamiento previstas y de los fines del tratamiento, inclusive, cuando proceda, el interés legítimo perseguido por el responsable del tratamiento;
- b) una evaluación de la necesidad y la



duten beharraren eta proportzionaltasunaren ebaluazioa.

- c) Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren interesdunen eskubide eta askatasunetarako dauden arriskuen ebaluazioa.
- d) Arriskuei aurre egiteko aurreikusitako neurriak –bermeak, segurtasun-neurriak eta datu pertsonalen babesa bermatuko dutenak barne– eta erregelamendu honekin bat datozela frogatzeko neurriak, kontuan hartuta interesdunen eta eragindako beste pertsona batzuen eskubide eta interes legitimoak.

8. Erregelamendu honetako 40. artikuluari jarraituz arduradunek edo eragileek onartutako jokabide-kodeak betetzea behar bezala hartuko da kontuan arduradun edo eragile horiek egindako tratamendu-eragiketen ondorioak ebaluatzeko unean; batez ere, datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioaren ondorioetarako.

9. Hala dagokionean, aurreikusitako tratamenduaren gaineko iritzia eskatuko die tratamenduaren arduradunak interesdunei edo haien ordezkariari, ezertan eragotzi gabe tratamendu-eragiketen interes publiko edo komertzialen babesa edo segurtasuna.

10. Baldin eta 6.1 artikuluko c) edo e) letren arabera tratamenduaren oinarri juridikoa bada tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kide bateko zuzenbidea, eta zuzenbide horrek arautzen badu kasuan kasuko tratamendu-eragiketa espezifiko edo eragiketamultzoa, eta dagoeneko datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin bada, oinarri juridiko hori gauzatzearen testuinguruko eraginaren ebaluazio orokor baten zati moduan, ez dira aplikatuko artikulu honetako 1.tik 7.era bitarteko zenbakiak salbu eta estatu kideek uste badute tratamendu-jardueren aurretiko ebaluazio hori

proporcionalidad de las operaciones de tratamiento con respecto a su finalidad;

- c) una evaluación de los riesgos para los derechos y libertades de los interesados a que se refiere el apartado 1, y
- d) las medidas previstas para afrontar los riesgos, incluidas garantías, medidas de seguridad y mecanismos que garanticen la protección de datos personales, y a demostrar la conformidad con el presente Reglamento, teniendo en cuenta los derechos e intereses legítimos de los interesados y de otras personas afectadas.

8. El cumplimiento de los códigos de conducta aprobados a que se refiere el artículo 40 por los responsables o encargados correspondientes se tendrá debidamente en cuenta al evaluar las repercusiones de las operaciones de tratamiento realizadas por dichos responsables o encargados, en particular a efectos de la evaluación de impacto relativa a la protección de datos.

9. Cuando proceda, el responsable recabará la opinión de los interesados o de sus representantes en relación con el tratamiento previsto, sin perjuicio de la protección de intereses públicos o comerciales o de la seguridad de las operaciones de tratamiento.

10. Cuando el tratamiento de conformidad con el artículo 6, apartado 1, letras c) o e), tenga su base jurídica en el Derecho de la Unión o en el Derecho del Estado miembro que se aplique al responsable del tratamiento, tal Derecho regule la operación específica de tratamiento o conjunto de operaciones en cuestión, y ya se haya realizado una evaluación de impacto relativa a la protección de datos como parte de una evaluación de impacto general en el contexto de la adopción de dicha base jurídica, los apartados 1 a 7 no serán de aplicación excepto si los Estados miembros consideran necesario



egitea beharrezkoa dela.

11. Beharrezkoa bada, arduradunak egiaztatuko du tratamendua bat datorren ala ez datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioarekin; behinik behin, tratamendu-eragiketen ondorioz arrisku-aldaketa bat dagoenean.

36. artikulua

Aurretiko kontsulta

1. Tratamenduaren arduradunak kontsulta egingo dio kontrol-agintaritzari tratamenduari ekin aurretik baldin eta 35. artikuluan araberako datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazio batek erakusten badu tratamenduak arrisku handia ekar lezakeela kontrako neurririk hartu ezean.

2. Kontrol-agintaritzak uste badu 1. zenbakian aipaturiko tratamenduak erregelamendu hau urra dezakeela, bereziki arduradunak ez badu arriskua behar beste identifikatu edo gutxitu, kontrol-agintaritzak aholkularitza eskainiko dio idatziz tratamenduaren arduradunari eta, halakorik badago, eragileari, kontsulta eskatu eta handik zortzi asteko epean, eta 58. artikuluan aipatutako ahalak erabili ahal izango ditu. Epe hori beste sei astez luza daiteke, aurreikusitako tratamenduaren konplexutasunaren arabera. Luzapen horren berri jakinaraziko dio kontrol-agintaritzak tratamenduaren arduradunari eta, halakorik badago, eragileari, hilabeteko epean kontsulta-eskabidea jasotzen denetik, luzapenaren arrazoiak azalduta. Epe horiek bertan behera utzi ahal izango dira harik eta kontrol-agintaritzak kontsultari begira eskatutako informazioa eskuratu arte.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiari jarraituz tratamenduaren arduradunak kontrol-agintaritzari kontsulta egiten dionean, informazio hau emango

proceder a dicha evaluación previa a las actividades de tratamiento.

11. En caso necesario, el responsable examinará si el tratamiento es conforme con la evaluación de impacto relativa a la protección de datos, al menos cuando exista un cambio del riesgo que representen las operaciones de tratamiento.

Artículo 36

Consulta previa

1. El responsable consultará a la autoridad de control antes de proceder al tratamiento cuando una evaluación de impacto relativa a la protección de los datos en virtud del artículo 35 muestre que el tratamiento entrañaría un alto riesgo si el responsable no toma medidas para para mitigarlo.

2. Cuando la autoridad de control considere que el tratamiento previsto a que se refiere el apartado 1 podría infringir el presente Reglamento, en particular cuando el responsable no haya identificado o mitigado suficientemente el riesgo, la autoridad de control deberá, en un plazo de ocho semanas desde la solicitud de la consulta, asesorar por escrito al responsable, y en su caso al encargado, y podrá utilizar cualquiera de sus poderes mencionados en el artículo 58. Dicho plazo podrá prorrogarse seis semanas, en función de la complejidad del tratamiento previsto. La autoridad de control informará al responsable y, en su caso, al encargado de tal prórroga en el plazo de un mes a partir de la recepción de la solicitud de consulta, indicando los motivos de la dilación. Estos plazos podrán suspenderse hasta que la autoridad de control haya obtenido la información solicitada a los fines de la consulta.

3. Cuando consulte a la autoridad de control con arreglo al apartado 1, el responsable del tratamiento le facilitará la información siguiente:



dio:

- | | |
|---|---|
| a) Hala badagokio, tratamenduan inplikaturiko arduradunaren, erantzunkideen eta eragileen erantzukizunak, bereziki tratamendua enpresatalde baten barruan bada. | a) en su caso, las responsabilidades respectivas del responsable, los corresponsables y los encargados implicados en el tratamiento, en particular en caso de tratamiento dentro de un grupo empresarial; |
| b) Aurreikusitako tratamenduaren helburuak eta bitartekoak. | b) los fines y medios del tratamiento previsto; |
| c) Erregelamendu honen arabera interesdunen eskubideak eta askatasunak babesteko neurriak eta bermeak. | c) las medidas y garantías establecidas para proteger los derechos y libertades de los interesados de conformidad con el presente Reglamento; |
| d) Datuak babesteko ordezkararen harremanetarako datuak, halakorik badago. | d) en su caso, los datos de contacto del delegado de protección de datos; |
| e) 35. artikuluan ezarritako datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa. | e) la evaluación de impacto relativa a la protección de datos establecida en el artículo 35, y |
| f) Kontrol-agintaritzak eskatzen duen beste edozein informazio. | f) cualquier otra información que solicite la autoridad de control. |

4. Estatu kideek bermatuko dute kontsulta egiten zaiola kontrol-agintaritzari, tratamenduari eragiten dion eta parlamentu nazional batek hartu behar duen legegintza-neurrien proposamen oro edo legegintza-neurri horietan oinarritutako arauzko neurri oro lantzen den bitartean.

4. Los Estados miembros garantizarán que se consulte a la autoridad de control durante la elaboración de toda propuesta de medida legislativa que haya de adoptar un Parlamento nacional, o de una medida reglamentaria basada en dicha medida legislativa, que se refiera al tratamiento.

5. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa gorabehera, estatu kideetako zuzenbideak behartu ditzake tratamenduaren arduradunak kontrol-agintaritzari kontsulta egitera eta alde aurretiko baimena eskatzera, arduradun batek interes publikoaren izenean gauzaturiko misio baten barruan diharduenean, bereziki babes sozialari eta osasun publikoari buruzko tratamendua denean.

5. No obstante lo dispuesto en el apartado 1, el Derecho de los Estados miembros podrá obligar a los responsables del tratamiento a consultar a la autoridad de control y a recabar su autorización previa en relación con el tratamiento por un responsable en el ejercicio de una misión realizada en interés público, en particular el tratamiento en relación con la protección social y la salud pública.

4. atala

Sección 4



Datuak babesteko ordezkaria

37. artikulua

Datuak babesteko ordezkaria izendatzea

1. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak kasu hauetan izendatuko dute datuak babesteko ordezkari bat:

- a) Tratamendua egiten duena agintaritza edo erakunde publiko bat bada, beren funtzio judiziala betez diharduten epaitegien kasuan izan ezik.
- b) Tratamenduaren izaera, irismena edo helburuak direla-eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen jardura nagusiak baldin badira interesdunen eskala handiko ohiko behaketa sistematiko bat eskatzen duten eragiletak.
- c) Tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen jardura nagusiak baldin badira 9. artikuluan araberako datu-kategoria berezien eskala handiko tratamendua edo 10. artikuluan aipatzen diren kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamendua.

2. Enpresa-talde batek datuak babesteko ordezkari bakar bat izendatu ahalko du, baldin eta ordezkaria establezimendu bakoitzaren irispidean erraz baldin badago.

3. Tratamenduaren arduraduna edo eragilea agintaritza edo erakunde publiko bat denean, datuak babesteko ordezkari bakar bat izendatu ahalko da agintaritza edo erakunde horietako batzuetarako, haien antolakuntza-egitura eta tamaina kontuan hartuta.

4. Artikulu honetako 1. zenbakian aipaturiko kasuez beste guztietan, tratamenduaren arduradunak edo eragileak edo arduradun- edo eragile-kategoriak ordezkatzeko dituzten elkarte eta

Delegado de protección de datos

Artículo 37

Designación del delegado de protección de datos

1. El responsable y el encargado del tratamiento designarán un delegado de protección de datos siempre que:

- a) el tratamiento lo lleve a cabo una autoridad u organismo público, excepto los tribunales que actúen en ejercicio de su función judicial;
- b) las actividades principales del responsable o del encargado consistan en operaciones de tratamiento que, en razón de su naturaleza, alcance y/o fines, requieran una observación habitual y sistemática de interesados a gran escala, o
- c) las actividades principales del responsable o del encargado consistan en el tratamiento a gran escala de categorías especiales de datos personales con arreglo al artículo 9 y de datos relativos a condenas e infracciones penales a que se refiere el artículo 10.

2. Un grupo empresarial podrá nombrar un único delegado de protección de datos siempre que sea fácilmente accesible desde cada establecimiento.

3. Cuando el responsable o el encargado del tratamiento sea una autoridad u organismo público, se podrá designar un único delegado de protección de datos para varias de estas autoridades u organismos, teniendo en cuenta su estructura organizativa y tamaño.

4. En casos distintos de los contemplados en el apartado 1, el responsable o el encargado del tratamiento o las asociaciones y otros organismos que representen a categorías de responsables o



bestelako erakundeek datuak babesteko ordezkari bat izendatu ahalko dute, edo izendatu beharko dute, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak hala exijitzen badu. Arduradunak edo eragileak ordezkatzeko dituzten elkarte eta bestelako erakunde horien kontura jardun dezake datuak babesteko ordezkariak.

5. Datuak babesteko ordezkaria izendatzeko, haren trebetasun profesionalak hartuko dira aintzat, bai eta, bereziki, Zuzenbidean duen jakintza espezializatua, datu-babesaren alorrean duen praktika eta 39. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzeko duen gaitasuna ere.

6. Datuak babesteko ordezkaria tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen plantillan egon daiteke, edo zerbitzu-kontratu baten esparruan jardun bere eginkizunetan.

7. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak argitaratuko dituzte eta kontrol-agintaritzari jakinaraziko dizkiote.

38. artikulua

Datuak babesteko ordezkariaren kokagunea

1. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak bermatuko dute datuak babesteko ordezkariak behar bezala eta garaiz parte hartzen duela datu pertsonalen babesari buruzko gai guztietan.

2. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak laguntza emango diote datuak babesteko ordezkariari 39. artikuluan adierazitako eginkizunei begira; horretarako, eginkizunok betetzeko, datu pertsonalak eta tratamendu-eragiketak irispidean izateko eta beraren jakintza espezializatua atxikitze behar dituen baliabideak eskuratuko dizkiote.

encargados podrán designar un delegado de protección de datos o deberán designarlo si así lo exige el Derecho de la Unión o de los Estados miembros. El delegado de protección de datos podrá actuar por cuenta de estas asociaciones y otros organismos que representen a responsables o encargados.

5. El delegado de protección de datos será designado atendiendo a sus cualidades profesionales y, en particular, a sus conocimientos especializados del Derecho y la práctica en materia de protección de datos y a su capacidad para desempeñar las funciones indicadas en el artículo 39.

6. El delegado de protección de datos podrá formar parte de la plantilla del responsable o del encargado del tratamiento o desempeñar sus funciones en el marco de un contrato de servicios.

7. El responsable o el encargado del tratamiento publicarán los datos de contacto del delegado de protección de datos y los comunicarán a la autoridad de control.

Artículo 38

Posición del delegado de protección de datos

1. El responsable y el encargado del tratamiento garantizarán que el delegado de protección de datos participe de forma adecuada y en tiempo oportuno en todas las cuestiones relativas a la protección de datos personales.

2. El responsable y el encargado del tratamiento respaldarán al delegado de protección de datos en el desempeño de las funciones mencionadas en el artículo 39, facilitando los recursos necesarios para el desempeño de dichas funciones y el acceso a los datos personales y a las operaciones de tratamiento, y para el mantenimiento de sus conocimientos especializados.



3. Tratamenduaren arduradunak eta eragileak berrmatuko dute datuak babesteko ordezkariak ez duela inolako jarraibiderik jasotzen eginkizun horiek betetzeari dagokionez. Arduradunak edo eragileak ezingo dute kargutik kendu edo zehatu dagozkion eginkizunak betetzeagatik. Datuak babesteko ordezkariak kontuak emango dizkio, zuzen-zuzenean, arduradunaren edo eragilearen gaineko hierarkia-maila gorenari.

4. Interesdunak datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, beraien datu pertsonalen tratamenduarekin loturiko kontuak eta erregelamendu honen babesean dituzten eskubideak egikaritzeari loturikoak direla medio.

5. Bere eginkizunak betetzen dituzenean, datuak babesteko ordezkariak sekretua edo konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra izango du, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearekin bat.

6. Datuak babesteko ordezkariak beste eginkizun eta zeregin batzuk bete ahal izango ditu. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak berrmatuko du eginkizun eta zeregin horiek ez dutela interes-gatazkarik sortuko.

39. artikulua

Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak

1. Hauek izango dira, gutxienez, datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak:

a) Informazioa eta aholkularitza ematea tratamenduaren arduradunari edo eragileari eta tratamenduarekin diharduten langileei, erregelamendu honek eta Batasuneko edo estatu kideetako datu-babesari buruzko beste xedapen batzuek esleitzen dizkieten betekizunei buruz.

b) Gainbegiratzea betetzen dela erregelamendu

a) Arduradun edo eragilearen eta hirugarren herrialdeko edo nazioarteko erakundeko datu pertsonalen arduradun, eragile edo hartzailearen arteko kontratu-klausulen bidez.

b) Interesdunentzako eskubide benetako eta derrigorrezkoak barne hartzen dituzten agintaritzen edo erakunde publikoen arteko akordio administratiboetan txertatzen diren xedapenen bidez.

4. Kontrol-agintaritzak artikuluko 3. zenbakiko kasuetan erabiliko du 63. artikuluan aipatzen den koherentzia-mekanismoa.

5. 95/46/EE Zuzentarauaren 26.2 artikuluarik jarraituz estatu kide batek edo kontrol-agintaritzak ematen dituen baimenek baliagarriak izaten jarraituko dute harik eta, beharrezkoa izanez gero, kontrol-agintaritzak horrek aldatu, ordeztu edo indargabetzen dituen arte. 95/46/EE Zuzentarauaren 26. artikuluarik jarraituz Batzordeak hartzen dituen erabakiak indarrean egongo dira harik eta Batzordearen beraren beste erabaki batek aldatu, ordeztu edo indargabetzen dituen arte, artikuluko 2. zenbakiaren arabera.

al artículo 40, junto con compromisos vinculantes y exigibles del responsable o el encargado del tratamiento en el tercer país de aplicar garantías adecuadas, incluidas las relativas a los derechos de los interesados, o

f) un mecanismo de certificación aprobado con arreglo al artículo 42, junto con compromisos vinculantes y exigibles del responsable o el encargado del tratamiento en el tercer país de aplicar garantías adecuadas, incluidas las relativas a los derechos de los interesados.

3. Siempre que exista autorización de la autoridad de control competente, las garantías adecuadas contempladas en el apartado 1 podrán igualmente ser aportadas, en particular, mediante:

a) cláusulas contractuales entre el responsable o el encargado y el responsable, encargado o destinatario de los datos personales en el tercer país u organización internacional, o

b) disposiciones que se incorporen en acuerdos administrativos entre las autoridades u organismos públicos que incluyan derechos efectivos y exigibles para los interesados.

4. La autoridad de control aplicará el mecanismo de coherencia a que se refiere el artículo 63 en los casos indicados en el apartado 3 del presente artículo.

5. Las autorizaciones otorgadas por un Estado miembro o una autoridad de control de conformidad con el artículo 26, apartado 2, de la Directiva 95/46/CE seguirán siendo válidas hasta que hayan sido modificadas, sustituidas o derogadas, en caso necesario, por dicha autoridad de control. Las decisiones adoptadas por la Comisión en virtud del artículo 26, apartado 4, de la Directiva 95/46/CE permanecerán en vigor hasta que sean modificadas, sustituidas o derogadas, en caso necesario, por una decisión de



la Comisión adoptada de conformidad con el apartado 2 del presente artículo.

47. artikulua

Arau korporatibo lotesleak

1. Kontrol-agintaritza eskudunak 63. artikuluan ezarritako koherentzia-mekanismoaren araberako arau korporatibo lotesleak onartuko ditu, baldin eta:

- a) Arauok juridikoki lotesleak badira eta jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-taldeko edo enpresa-elkarteko kide guztiek aplikatu eta betetzen badituzte, baita bertako langileek ere.
- b) Interesdunei espresuki beren datu pertsonalen tratamenduari loturiko eskubide derrigorrezkoak ematen badizkiete.
- c) 2. zenbakian ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

2. Artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako arau korporatibo lotesleak elementu hauek jasoko dituzte, gutxienez:

- a) Jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-taldearen edo enpresa-elkartearen eta beraien kide bakoitzaren egitura eta harremanetarako datuak.
- b) Datu-transferentziak edo datu-transferentzien multzoak, datu pertsonalen kategoriak barne, tratamendu motak eta haien helburuak, eragindako interesdun motak eta kasuan kasuko herrialdearen edo herrialdeen izenak.
- c) Haren izaera juridiko loteslea, bai barne-mailan bai kanpo-mailan.
- d) Datu-babesari buruzko printzipio orokorren

Artículo 47

Normas corporativas vinculantes

1. La autoridad de control competente aprobará normas corporativas vinculantes de conformidad con el mecanismo de coherencia establecido en el artículo 63, siempre que estas:

- a) sean jurídicamente vinculantes y se apliquen y sean cumplidas por todos los miembros correspondientes del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta, incluidos sus empleados;
- b) confieran expresamente a los interesados derechos exigibles en relación con el tratamiento de sus datos personales, y
- c) cumplan los requisitos establecidos en el apartado 2.

2. Las normas corporativas vinculantes mencionadas en el apartado 1 especificarán, como mínimo, los siguientes elementos:

- a) la estructura y los datos de contacto del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta y de cada uno de sus miembros;
- b) las transferencias o conjuntos de transferencias de datos, incluidas las categorías de datos personales, el tipo de tratamientos y sus fines, el tipo de interesados afectados y el nombre del tercer o los terceros países en cuestión;
- c) su carácter jurídicamente vinculante, tanto a nivel interno como externo;
- d) la aplicación de los principios generales en



aplikazioa; bereziki, helburua mugatzea, datuak minimizatzea, kontserbazio-epe mugatuak, datuen kalitatea, datuen babesa diseinutik bertatik eta lehenetsita, tratamenduaren oinarria, datu pertsonalen kategoría berezien tratamendua, datuen segurtasuna bermatzeko neurriak, eta arau korporatibo lotesleen mende ez dauden erakundeei gerora egiten zaizkien transferentziei buruzko baldintzak.

materia de protección de datos, en particular la limitación de la finalidad, la minimización de los datos, los periodos de conservación limitados, la calidad de los datos, la protección de los datos desde el diseño y por defecto, la base del tratamiento, el tratamiento de categorías especiales de datos personales, las medidas encaminadas a garantizar la seguridad de los datos y los requisitos con respecto a las transferencias ulteriores a organismos no vinculados por las normas corporativas vinculantes;

- e) Interesdunek tratamenduari buruz dituzten eskubideak eta eskubide horiek egikaritzeko bitartekoak; bereziki, tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen erabaki baten objektu ez izateko eskubidea, 22. artikulua arabera profilak egitea barne, kontrol-agintaritza eskudun batean eta 79. artikuluari jarraituz estatu kideetako auzitegi eskudunen aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea, eta arau korporatibo lotesleak urratzeagatik erreparazioa –eta, hala badagokio, kalte-ordaina– jasotzeko eskubidea.
- e) los derechos de los interesados en relación con el tratamiento y los medios para ejercerlos, en particular el derecho a no ser objeto de decisiones basadas exclusivamente en un tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22, el derecho a presentar una reclamación ante la autoridad de control competente y ante los tribunales competentes de los Estados miembros de conformidad con el artículo 79, y el derecho a obtener una reparación, y, cuando proceda, una indemnización por violación de las normas corporativas vinculantes;
- f) Estatu kide batean kokatuta dagoen tratamenduaren arduradunak edo eragileak bere gain hartzea Batasunean kokatuta ez dagoen enpresa-taldeko edozein kidek arau korporatibo lotesleak urratzeagatik erantzukizuna; arduraduna edo eragilea erantzukizun horretatik salbuetsi ahalko da, erabat edo partez, bakarrik frogatzen badu kalte-galerak sortu zituen ekintza ezin zaiola kide horri egotzi.
- f) la aceptación por parte del responsable o del encargado del tratamiento establecidos en el territorio de un Estado miembro de la responsabilidad por cualquier violación de las normas corporativas vinculantes por parte de cualquier miembro de que se trate no establecido en la Unión; el responsable o el encargado solo será exonerado, total o parcialmente, de dicha responsabilidad si demuestra que el acto que originó los daños y perjuicios no es imputable a dicho miembro;
- g) Interesdunei arau korporatibo lotesleen gaineko informazioa helarazteko modua, bereziki zenbaki honetako d), e) eta f) letretako xedapenak, 13. eta 14. artikuluez gainera.
- g) la forma en que se facilita a los interesados la información sobre las normas corporativas vinculantes, en particular en lo que respecta a las disposiciones contempladas en las letras d), e) y f) del presente apartado, además de los artículos 13 y 14;



- h) 37. artikuluari jarraituz datuak babesteko izendatutako ordezkariaren zereginak, edo enpresa-taldean edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkartean arau korporatibo lotesleak betetzen direla gainbegiratzeko ardura eta prestakuntzaren ardura eta erreklamazioak tramitatzeko ardura duen beste edozein pertsona edo erakunderen zereginak.
- i) Erreklamazioa egiteko prozedurak.
- j) Arau korporatibo lotesleak betetzen direla egiaztatzeko enpresa-taldean edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkartean ezarri diren mekanismoak. Mekanismo horien artean datu-babesari buruzko auditoriak egongo dira, bai eta interesdunen eskubideak babesteko neurri zuzentzaileak bermatzeko metodoak ere. Egiaztapen horien emaitzak h) letran aipatzen den pertsona edo erakundeari jakinarazi behar zaizkio, halaber enpresa-taldea kontrolatzen duen enpresako edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkarteko administrazio-batzarrari, eta eskatzen dituen kontrol-agintaritzaren esku jarri behar dira;
- k) Arauetan egindako aldaketak jakinarazteko eta erregistratzeko mekanismoak, eta aldaketa horiek kontrol-agintaritzari jakinaraztekoak.
- l) Enpresa-taldeko edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkarteko kide guztiek arauak betetzen dituztela bermatzeko kontrol-agintaritzarekin abian jarritako kooperazio-mekanismoa; bereziki, kontrol-agintaritzaren esku jarritz j) letran jasotako neurriak egiaztatzearen emaitzak.
- h) las funciones de todo delegado de protección de datos designado de conformidad con el artículo 37, o de cualquier otra persona o entidad encargada de la supervisión del cumplimiento de las normas corporativas vinculantes dentro del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta, así como de la supervisión de la formación y de la tramitación de las reclamaciones;
- i) los procedimientos de reclamación;
- j) los mecanismos establecidos dentro del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta para garantizar la verificación del cumplimiento de las normas corporativas vinculantes. Dichos mecanismos incluirán auditorías de protección de datos y métodos para garantizar acciones correctivas para proteger los derechos del interesado. Los resultados de dicha verificación deberían comunicarse a la persona o entidad a que se refiere la letra h) y al consejo de administración de la empresa que controla un grupo empresarial, o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta, y ponerse a disposición de la autoridad de control competente que lo solicite;
- k) los mecanismos establecidos para comunicar y registrar las modificaciones introducidas en las normas y para notificar esas modificaciones a la autoridad de control;
- l) el mecanismo de cooperación con la autoridad de control para garantizar el cumplimiento por parte de cualquier miembro del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta, en particular poniendo a disposición de la autoridad de control los resultados de las verificaciones de las medidas contempladas



en la letra j);

- m) Hirugarren herrialde batean enpresa-taldeko edo jarduera ekonomiko bateratua egiten duen enpresa-elkarteko kide bati aplikagarria zaion edozein eskakizun juridiko kontrol-agintaritza eskudunari jakinarazteko mekanismoak, eskakizun horiek seguruenik kontrako ondorioak badituzte arau korporatibo lotesleetan ezarritako bermeetan.
- n) Datu pertsonaletarako irispide etengabea edo ohikoa duten langileei datu-babesari buruz ematen zaien beharrezko prestakuntza.
- m) los mecanismos para informar a la autoridad de control competente de cualquier requisito jurídico de aplicación en un país tercero a un miembro del grupo empresarial o de la unión de empresas dedicadas a una actividad económica conjunta, que probablemente tengan un efecto adverso sobre las garantías establecidas en las normas corporativas vinculantes, y
- n) la formación en protección de datos pertinente para el personal que tenga acceso permanente o habitual a datos personales.

3. Arau korporatibo lotesleen inguruan arduradunen, eragileen eta kontrol-agintaritzen arteko informazio-trukea zein formatu eta zein prozeduraren bitartez egingo den erabaki ahalko du Batzordeak, artikulua honetan agindutakoari jarraituz. Betearazpen-egintza horiek 93.2 artikuluan aipatzen den azterketa-prozedurari jarraituz hartuko dira.

3. La Comisión podrá especificar el formato y los procedimientos para el intercambio de información entre los responsables, los encargados y las autoridades de control en relación con las normas corporativas vinculantes a tenor de lo dispuesto en el presente artículo. Dichos actos de ejecución se adoptarán con arreglo al procedimiento de examen a que se refiere el artículo 93, apartado 2.

48. artikulua

Artículo 48

Batasuneko zuzenbideak baimentzen ez dituen transferentziak edo jakinarazpenak

Transferencias o comunicaciones no autorizadas por el Derecho de la Unión

Tratamenduaren arduradun batek edo eragile batek datu pertsonalak transferi edo jakinaraz ditzan exijitzen duen hirugarren herrialde bateko jurisdikzio-organo baten edozein epai edo administrazio-agintaritza baten edozein erabaki onartu edo edonola egikaritu ahal izateko, beharrezkoa izango da nazioarteko akordio batean oinarritua izatea: esate baterako, elkarrekiko laguntza juridikorako itun bat, hirugarren herrialde eskatzailearen eta Batasunaren edo estatu kide baten artean indarrean dagoena, hargatik eragotzi gabe kapitulu honen babesean transferentzia egiteko egon daitezkeen bestelako arrazoiak.

Cualquier sentencia de un órgano jurisdiccional o decisión de una autoridad administrativa de un tercer país que exijan que un responsable o encargado del tratamiento transfiera o comunique datos personales únicamente será reconocida o ejecutable en cualquier modo si se basa en un acuerdo internacional, como un tratado de asistencia jurídica mutua, vigente entre el país tercero requirente y la Unión o un Estado miembro, sin perjuicio de otros motivos para la transferencia al amparo del presente capítulo.

49. artikulua

Artículo 49



Egoera espezifikokoetako salbuespenak

1. Baldin eta 45.3 artikulua araberako egokitzapen-erabakirik ez badago, edo 46. artikulua araberako berme egokirik ezean –arau korporatibo lotesleak barne–, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera datu pertsonalen transferentzia bat edo transferentzia-multzo bat egiteko nahitaezkoa izango da baldintza hauetakoren bat betetzea:

- a) Interesdunak berriaz adostasuna eman badu proposatutako transferentzia egin dadin, egokitzapen-erabakien eta berme egokien gabezia dela-eta transferentzia horrek sor diezazkiokeen arriskuei buruzko informazioa jaso ondoren.
- b) Transferentzia beharrezkoa bada interesdunaren eta fitxategiaren arduradunaren arteko kontratu bat betearazteko edo interesdunaren eskariz kontratua egin aurretiko neurriak hartzeko.
- c) Transferentzia beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunaren eta beste pertsona fisiko edo juridikoaren arteko kontratu bat egiteko edo betearazteko, interesdunaren onerako.
- d) Transferentzia beharrezkoa bada interes publikoko arrazoi sendoak direla medio.
- e) Transferentzia beharrezkoa bada erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
- f) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona batzuen bizi-interesak babesteko, baldin eta interesdunak gaitasunik ez badu adostasuna emateko, arrazoi fisiko zein juridikoen ondorioz.
- g) Transferentzia erregistro publiko batetik egiten

Excepciones para situaciones específicas

1. En ausencia de una decisión de adecuación de conformidad con el artículo 45, apartado 3, o de garantías adecuadas de conformidad con el artículo 46, incluidas las normas corporativas vinculantes, una transferencia o un conjunto de transferencias de datos personales a un tercer país u organización internacional únicamente se realizará si se cumple alguna de las condiciones siguientes:

- a) el interesado haya dado explícitamente su consentimiento a la transferencia propuesta, tras haber sido informado de los posibles riesgos para él de dichas transferencias debido a la ausencia de una decisión de adecuación y de garantías adecuadas;
- b) la transferencia sea necesaria para la ejecución de un contrato entre el interesado y el responsable del tratamiento o para la ejecución de medidas precontractuales adoptadas a solicitud del interesado;
- c) la transferencia sea necesaria para la celebración o ejecución de un contrato, en interés del interesado, entre el responsable del tratamiento y otra persona física o jurídica;
- d) la transferencia sea necesaria por razones importantes de interés público;
- e) la transferencia sea necesaria para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones;
- f) la transferencia sea necesaria para proteger los intereses vitales del interesado o de otras personas, cuando el interesado esté física o jurídicamente incapacitado para dar su consentimiento;
- g) la transferencia se realice desde un registro



bada, zeinaren xedea, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera, publikoari informazioa eskuratzea baita, eta zeina irekita baitago publikoaren kontsulta orokorrerako edo interes legitimoa egiazta dezakeen edonoren kontsultarako, baina bakarrik kasu zehatz bakoitzean Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak kontsultari begira ezartzen dituzten baldintzak betetzen diren neurrian.

Transferentzia bat ezin bada oinarritu 45. edo 46. artikuluetako xedapenetan –arau korporatibo lotesleak barne–, eta ezin bada aplikatu zenbaki honetako lehenengo ataleko egoera espezifikotarako salbuespenik, transferentzia bat hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egin ahal izango da, bakar-bakarrik, baldin eta: errepikakorra ez bada; interesdun kopuru mugatu bati baino ez badio eragiten; beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak bilatzen dituen interes legitimo larriei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden interesdunaren interesak edo eskubideak eta askatasunak, eta tratamenduaren arduradunak datu-transferentzian gertatzen diren gorabehera guztiak ebaluatu baditu eta, ebaluazio horretan oinarrituta, datu pertsonalen babesari buruzko berme egokiak eman baditu. Tratamenduaren arduradunak transferentziaren berri emango dio kontrol-agintaritzari. Erregelamendu honetako 13. eta 14. artikuluetako informazioa ez ezik, transferentziari buruzko informazioa eta bilatzen diren interes legitimo larriei buruzkoa emango dio tratamenduaren arduradunak interesdunari.

2. Artikulu honetako 1. zenbakiko lehen paragrafoko g) letraren arabera egindako transferentzia batek ez ditu barne hartuko erregistroko datu pertsonal guzti-guztiak ezta datu pertsonalen kategoria osoak ere. Erregistroaren helburua interes legitimoa duten pertsonen kontsulta egitea bada, pertsona horien eskariz edo pertsona horiek hartzaileak badira baino ez da egingo transferentzia.

público que, con arreglo al Derecho de la Unión o de los Estados miembros, tenga por objeto facilitar información al público y esté abierto a la consulta del público en general o de cualquier persona que pueda acreditar un interés legítimo, pero sólo en la medida en que se cumplan, en cada caso particular, las condiciones que establece el Derecho de la Unión o de los Estados miembros para la consulta.

Cuando una transferencia no pueda basarse en disposiciones de los artículos 45 o 46, incluidas las disposiciones sobre normas corporativas vinculantes, y no sea aplicable ninguna de las excepciones para situaciones específicas a que se refiere el párrafo primero del presente apartado, solo se podrá llevar a cabo si no es repetitiva, afecta solo a un número limitado de interesados, es necesaria a los fines de intereses legítimos imperiosos perseguidos por el responsable del tratamiento sobre los que no prevalezcan los intereses o derechos y libertades del interesado, y el responsable del tratamiento evaluó todas las circunstancias concurrentes en la transferencia de datos y, basándose en esta evaluación, ofreció garantías apropiadas con respecto a la protección de datos personales. El responsable del tratamiento informará a la autoridad de control de la transferencia. Además de la información a que hacen referencia los artículos 13 y 14, el responsable del tratamiento informará al interesado de la transferencia y de los intereses legítimos imperiosos perseguidos.

2. Una transferencia efectuada de conformidad con el apartado 1, párrafo primero, letra g), no abarcará la totalidad de los datos personales ni categorías enteras de datos personales contenidos en el registro. Si la finalidad del registro es la consulta por parte de personas que tengan un interés legítimo, la transferencia solo se efectuará a solicitud de dichas personas o si estas han de ser las destinatarias.



3. Artikulu honetako 1. zenbakiko lehenengo paragrafoko a), b) eta c) letrak eta bigarren paragrafoa ez dira aplikatuko agintaritza publikoek beren botere publikoak egikaritzean egiten dituzten jardueretan.

4. Artikulu honetako 1. zenbakiko lehenengo paragrafoko d) letran jasotzen den interes publikoak tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen aitorpena izango du.

5. Datu-babesari buruzko egokitzapen-erabakirik ezean, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak mugak ezarri ahal izango dizkio hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera datuen kategoria espezifikoak transferitzeari, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio. Xedapen horien berri jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari.

6. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak artikulu honetako 1. zenbakiko bigarren paragrafoan aipatzen diren ebaluazioa eta berme egokiak dokumentatuko ditu 30. artikuluan azaltzen diren erregistroetan.

50. artikulua

Nazioarteko lankidetzak, datu pertsonalak babesteko eremuan

Hirugarren herrialde eta nazioarteko erakundeei begira, neurriak hartuko dituzte Batzordeak eta kontrol-agintaritzek helburu hauek lortzeko:

- a) Nazioarteko lankidetzarako mekanismoak sortzea, datu pertsonalen babesari buruzko legeria modu eraginkorrean aplikatzen laguntzeko.
- b) Nazioarte mailan elkarri laguntza ematea datu pertsonalen babesari buruzko legeria

3. En el apartado 1, el párrafo primero, letras a), b) y c), y el párrafo segundo no serán aplicables a las actividades llevadas a cabo por las autoridades públicas en el ejercicio de sus poderes públicos.

4. El interés público contemplado en el apartado 1, párrafo primero, letra d), será reconocido por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento.

5. En ausencia de una decisión por la que se constate la adecuación de la protección de los datos, el Derecho de la Unión o de los Estados miembros podrá, por razones importantes de interés público, establecer expresamente límites a la transferencia de categorías específicas de datos a un tercer país u organización internacional. Los Estados miembros notificarán a la Comisión dichas disposiciones.

6. El responsable o el encargado del tratamiento documentarán en los registros indicados en el artículo 30 la evaluación y las garantías apropiadas a que se refiere el apartado 1, párrafo segundo, del presente artículo.

Artículo 50

Cooperación internacional en el ámbito de la protección de datos personales

En relación con los terceros países y las organizaciones internacionales, la Comisión y las autoridades de control tomarán medidas apropiadas para:

- a) crear mecanismos de cooperación internacional que faciliten la aplicación eficaz de la legislación relativa a la protección de datos personales;
- b) prestarse mutuamente asistencia a escala internacional en la aplicación de la legislación



aplikatzeko unean, bereziki jakinarazpen bidez, erreklamazioak bidaliz, ikerketetan lagunduz eta informazioa trukatu, alde batera utzi gabe datu pertsonalak eta oinarritzko beste eskubide eta askatasun batzuk babesteari buruzko berme egokiak.

- c) Alor honetan interesdun diren alderdiak engaiatzea, datu pertsonalen babesari buruzko legeria aplikatzeko unean nazioarteko lankidetzaren indartzeko eztabaida eta jardueretan.
- d) Datu pertsonalen alorreko legeria eta praktiken trukea eta dokumentazioa sustatzea, barne hartuta hirugarren herrialdeekiko jurisdikzio-auziak ere.

relativa a la protección de datos personales, en particular mediante la notificación, la remisión de reclamaciones, la asistencia en las investigaciones y el intercambio de información, a reserva de las garantías adecuadas para la protección de los datos personales y otros derechos y libertades fundamentales;

- c) asociar a partes interesadas en la materia a los debates y actividades destinados a reforzar la cooperación internacional en la aplicación de la legislación relativa a la protección de datos personales;
- d) promover el intercambio y la documentación de la legislación y las prácticas en materia de protección de datos personales, inclusive en materia de conflictos de jurisdicción con terceros países.

VI. KAPITULUA

Kontrol-agintaritza independenteak

1. atala

Independentzia

51. artikulua

Kontrol-agintaritza

1. Estatu kide bakoitzak erabakiko du agintaritza publiko independente baten edo gehiagoren erantzukizuna izango den erregelamendu honen aplikazioa gainbegiratzea, tratamendua dela-eta pertsona fisikoen oinarritzko eskubide eta askatasunak babesteko eta Batasunaren barruko datu pertsonalen zirkulazio askea errazteko (aurrerantzean, «kontrol-agintaritza» deituko zaie).

2. Kontrol-agintaritza bakoitzak erregelamendu hau Batasun osoan era koherentean aplikatzeko laguntza emango du. Horretarako,

CAPÍTULO VI

Autoridades de control independientes

Sección 1

Independencia

Artículo 51

Autoridad de control

1. Cada Estado miembro establecerá que sea responsabilidad de una o varias autoridades públicas independientes (en adelante «autoridad de control») supervisar la aplicación del presente Reglamento, con el fin de proteger los derechos y las libertades fundamentales de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento y de facilitar la libre circulación de datos personales en la Unión.

2. Cada autoridad de control contribuirá a la aplicación coherente del presente Reglamento en toda la Unión. A tal fin, las autoridades de



elkarlanean jardungo dute kontrol-agintaritzek, haien artean eta Batzordearekin batera, VII. kapituluaren xedatutakoari jarraituz.

3. Estatu kide batean kontrol-agintaritza bat baino gehiago badago, Batzordean haiek denak ordezkatzeko dituen kontrol-agintaritza izendatuko du estatuak, eta gainerako agintaritzek 63. artikuluan aipatutako koherentzia-mekanismoari buruzko arauak betetzen dituztela bermatzen duen mekanismoa finkatuko du.

4. Estatu kide bakoitzak 2018ko maiatzaren 25ean, beranduenez, jakinaraziko dizkio Batzordeari kapitulu honen ondorioz hartzen dituen lege-xedapenak; halaber jakinaraziko dio, lehenbailehen, xedapen horiei eragiten dien edozein aldaketa.

52. artikulua

Independentzia

1. Kontrol-agintaritza bakoitzak erabateko independentziaz jokatuko du erregelamendu honen arabera dagozkion eginkizunak betetzean eta ahalak egikaritzean.

2. Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideek beregain jokatuko dute erregelamendu honen arabera dagozkien eginkizunak betetzean eta ahalak egikaritzean, kanpoko inoren eraginaren mende egon gabe (dela zuzeneko eragina dela zeharkakoa), eta ez dute inoren instrukziorik eskatuko edo onartuko.

3. Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideek ezingo dute eskurik hartu beren eginkizunekin bateraezina den inongo ekintzatan, eta haien agintaldiak irauten duen bitartean ez dute bateraezina den inongo jarduera profesionaletan parte hartuko, jarduera ordaindua izan edo ez.

4. Estatu kide bakoitzak bermatu beharko du ezen kontrol-agintaritza bakoitzak bere esku izango

control cooperarán entre sí y con la Comisión con arreglo a lo dispuesto en el capítulo VII.

3. Cuando haya varias autoridades de control en un Estado miembro, este designará la autoridad de control que representará a dichas autoridades en el Comité, y establecerá el mecanismo que garantice el cumplimiento por las demás autoridades de las normas relativas al mecanismo de coherencia a que se refiere el artículo 63.

4. Cada Estado miembro notificará a la Comisión las disposiciones legales que adopte de conformidad con el presente capítulo a más tardar el 25 de mayo de 2018 y, sin dilación, cualquier modificación posterior que afecte a dichas disposiciones.

Artículo 52

Independencia

1. Cada autoridad de control actuará con total independencia en el desempeño de sus funciones y en el ejercicio de sus poderes de conformidad con el presente Reglamento.

2. El miembro o los miembros de cada autoridad de control serán ajenos, en el desempeño de sus funciones y en el ejercicio de sus poderes de conformidad con el presente Reglamento, a toda influencia externa, ya sea directa o indirecta, y no solicitarán ni admitirán ninguna instrucción.

3. El miembro o los miembros de cada autoridad de control se abstendrán de cualquier acción que sea incompatible con sus funciones y no participarán, mientras dure su mandato, en ninguna actividad profesional que sea incompatible, remunerada o no.

4. Cada Estado miembro garantizará que cada autoridad de control disponga en todo



dituela, uneoro, dagozkien eginkizunak betetzeko eta ahalak egikaritzeko –barne hartuta elkarlanaren eremuan eta lankidetzarenean eta Lantaldeko partaidetzarenean egikaritzekoak– beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta finantzarioak, eta halaber beharrezkoak diren lokalak eta azpiegiturak.

5. Estatu kide bakoitzak bermatu beharko du ezen kontrol-agintaritzak bakoitzak bere langile-taldea aukeratu eta erabili ahal izango duela, zeina kontrol-agintaritzak interesduneko kidearen edo kideen agintearen mende, eta ez beste inoren mende, egongo baita.

6. Estatu kide bakoitzak bermatu beharko du ezen kontrol-agintaritzak bakoitza finantza-kontrol baten mende egongo dela. Finantza-kontrol horrek ez du beraren independentzia urratuko eta urteko aurrekontu batez hornituko da, publikoa eta independentea, zeina Estatuaren aurrekontu orokorrean edo esparru nazionaleko beste baten barruan egon ahal izango baita.

53. artikulua

Kontrol-agintaritzako kideei aplikagarriak zaizkien baldintza orokorrak

1. Estatu kideen aginduz, honek izendatuko du beraien kontrol-agintaritzetako kide bakoitza, prozedura garden baten bidez:

— Bertako parlamentuak.

— Bertako gobernuak.

— Bertako estatuburuak.

— Estatu kideetako zuzenbidearen arabera izendapenaren ardura duen erakunde independente batek.

2. Kide bakoitzak dagozkion eginkizunak betetzeko eta ahalak egikaritzeko beharrezkoak

momento de los recursos humanos, técnicos y financieros, así como de los locales y las infraestructuras necesarios para el cumplimiento efectivo de sus funciones y el ejercicio de sus poderes, incluidos aquellos que haya de ejercer en el marco de la asistencia mutua, la cooperación y la participación en el Comité.

5. Cada Estado miembro garantizará que cada autoridad de control elija y disponga de su propio personal, que estará sujeto a la autoridad exclusiva del miembro o miembros de la autoridad de control interesada.

6. Cada Estado miembro garantizará que cada autoridad de control esté sujeta a un control financiero que no afecte a su independencia y que disponga de un presupuesto anual, público e independiente, que podrá formar parte del presupuesto general del Estado o de otro ámbito nacional.

Artículo 53

Condiciones generales aplicables a los miembros de la autoridad de control

1. Los Estados miembros dispondrán que cada miembro de sus autoridades de control sea nombrado mediante un procedimiento transparente por:

— su Parlamento,

— su Gobierno,

— su Jefe de Estado, o

— un organismo independiente encargado del nombramiento en virtud del Derecho de los Estados miembros.

2. Cada miembro poseerá la titulación, la experiencia y las aptitudes, en particular en el



diren titulazioa, esperientzia eta gaitasunak izango ditu, batez ere datu pertsonalen babesari buruzko alorrekoak.

3. Kideek haien agintaldia amaitzen denean emango dituzte bukatutzat beren eginkizunak, edo dimisioa ematen dutenean edo nahitaezko erretiroa hartzen dutenean, tokian tokiko estatu kideko zuzenbidearen arabera.

4. Kide bat kargutik kenduko da bakar-bakarrik arauz kontrako jokabide larria izan badu edo dagozkion eginkizunak betetzean exijitzen zaizkion eskakizunak betetzen ez baditu.

54. artikulua

Kontrol-agintaritza ezartzeko arauak

1. Honako hauek legez finkatuko ditu estatu kide bakoitzak:

- a) Kontrol-agintaritza bakoitzaren sorrera.
- b) Kontrol-agintaritza bakoitzean kide gisa izendatua izateko beharrezkoak diren ezaugarri eta baldintza egokiak.
- c) Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideak izendatzeko arauak eta prozedurak.
- d) Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideen agintaldiaren iraupena; berez, lau urtekoa, gutxienez, izango da, salbu eta 2016ko maiatzaren 24tik aurrera egiten den lehenengo izendapenaren kasuan, zeinean zati bat laburragoa izan baitaiteke baldin eta beharrezkoa bada mailakatutako izendatze-prozedura baten bitartez kontrol-agintaritzaren independentzia babesteko.
- e) Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideen agintaldia berriro daitekeen ala ez zehaztea, eta,

ámbito de la protección de datos personales, necesarias para el cumplimiento de sus funciones y el ejercicio de sus poderes.

3. Los miembros darán por concluidas sus funciones en caso de terminación del mandato, dimisión o jubilación obligatoria, de conformidad con el Derecho del Estado miembro de que se trate.

4. Un miembro será destituido únicamente en caso de conducta irregular grave o si deja de cumplir las condiciones exigidas en el desempeño de sus funciones.

Artículo 54

Normas relativas al establecimiento de la autoridad de control

1. Cada Estado miembro establecerá por ley todos los elementos indicados a continuación:

- a) el establecimiento de cada autoridad de control;
- b) las cualificaciones y condiciones de idoneidad necesarias para ser nombrado miembro de cada autoridad de control;
- c) las normas y los procedimientos para el nombramiento del miembro o miembros de cada autoridad de control;
- d) la duración del mandato del miembro o los miembros de cada autoridad de control, no inferior a cuatro años, salvo el primer nombramiento posterior al 24 de mayo de 2016, parte del cual podrá ser más breve cuando sea necesario para proteger la independencia de la autoridad de control por medio de un procedimiento de nombramiento escalonado;
- e) el carácter renovable o no del mandato del miembro o los miembros de cada autoridad de



berritu ahal bada, zenbat aldiz.

f) Kontrol-agintaritza bakoitzeko kideen eta langileen betebeharrak gobernatzen dituzten baldintzak; agintaldian zehar eta haren ondotik karguarekin bateraezinak diren ekintza, langintza eta prestazioei buruzko debekuak, eta enplegua bertan behera uztea gobernatzen duten arauak.

2. Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideari jarraituz, kontrol-agintaritza bakoitzeko kideek eta langileek sekretu profesionala gorde beharko dute, bai beren agintaldian bai agintaldia amaitu ondoan, dagozkien eginkizunak betetzean eta ahalak egikaritzean jakin duten informazio orori dagokionez. Agintaldian zehar, sekretu profesionala gordetzeko betebeharra aplikatuko da, bereziki, erregelamendu hau urratzearen inguruan pertsona fisikoengandik jasotzen den informazioaren kasuan.

2. atala

Eskumena, eginkizunak eta ahalak

55. artikulua

Eskumena

1. Kontrol-agintaritza bakoitzak eskumena izango du erregelamendu honen arabera bere estatu kidearen lurraldean esleitzen zaizkion eginkizunak betetzeko eta ematen zaizkion ahalak egikaritzeko.

2. Erregelamendu honetako 6.1 artikuluko c) edo e) letretan adierazitakoari jarraituz diharduten agintaritza publikoek edo erakunde pribatuek egiten badute tratamendua, kasuan kasuko estatu kideko kontrol-agintaritza izango da organo eskuduna. Kasu horietan ez da aplikatuko 56.

control y, en su caso, el número de veces que podrá renovarse;

f) las condiciones por las que se rigen las obligaciones del miembro o los miembros y del personal de cada autoridad de control, las prohibiciones relativas a acciones, ocupaciones y prestaciones incompatibles con el cargo durante el mandato y después del mismo, y las normas que rigen el cese en el empleo.

2. El miembro o miembros y el personal de cada autoridad de control estarán sujetos, de conformidad con el Derecho de la Unión o de los Estados miembros, al deber de secreto profesional, tanto durante su mandato como después del mismo, con relación a las informaciones confidenciales de las que hayan tenido conocimiento en el cumplimiento de sus funciones o el ejercicio de sus poderes. Durante su mandato, dicho deber de secreto profesional se aplicará en particular a la información recibida de personas físicas en relación con infracciones del presente Reglamento.

Sección 2

Competencia, funciones y poderes

Artículo 55

Competencia

1. Cada autoridad de control será competente para desempeñar las funciones que se le asignen y ejercer los poderes que se le confieran de conformidad con el presente Reglamento en el territorio de su Estado miembro.

2. Cuando el tratamiento sea efectuado por autoridades públicas o por organismos privados que actúen con arreglo al artículo 6, apartado 1, letras c) o e), será competente la autoridad de control del Estado miembro de que se trate. No será aplicable en tales casos el artículo 56.



artikulua.

3. Kontrol-agintaritzek ez dute eskumenik izango beren eginkizun judiziala betez diharduten epaitegiek egindako tratamendu-eragiketak kontrolatzeko.

56. artikulua

Kontrol-agintaritza nagusiaren eskumena

1. Erregelamendu honetako 55. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, establezimendu nagusiko kontrol-agintaritzak edo tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen establezimendu bakarreko kontrol-agintaritzak eskumena izango du kontrol-agintaritza nagusi gisa jarduteko arduradun edo eragile horrek egindako mugaz gaindiko tratamenduan, 60. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

2. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa gorabehera, kontrol-agintaritza bakoitzak eskumena izango du aurkezten zaion erreklamazio bat edo erregelamendu honen gaineko arau-hauste bat tratatzeko baldin eta erreklamazioa edo arau-haustea beraren estatu kidean kokatutako establezimendu bati buruzkoa bada bakarrik edo baldin eta modu esanguratsuan beraren estatu kideko interesdunei eragiten badie bakarrik.

3. Artikulu honetako 2. zenbakiko kasuetan, tokian tokiko kontrol-agintaritzak lehenbailehen jarriko du horren jakitun kontrol-agintaritza nagusia. Informazio hori jaso eta hiru asteko epean, kontrol-agintaritza nagusiak erabakiko du kasu hori 60. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera tratatuko duen ala ez, kontuan hartuta ea tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen establezimendurik dagoen informazioa helarazi dion kontrol-agintaritzaren estatu kidean.

4. Kontrol-agintaritza nagusiak kasua tratatzea erabakitzen badu, 60. artikuluan ezarritako

3. Las autoridades de control no serán competentes para controlar las operaciones de tratamiento efectuadas por los tribunales en el ejercicio de su función judicial.

Artículo 56

Competencia de la autoridad de control principal

1. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 55, la autoridad de control del establecimiento principal o del único establecimiento del responsable o del encargado del tratamiento será competente para actuar como autoridad de control principal para el tratamiento transfronterizo realizado por parte de dicho responsable o encargado con arreglo al procedimiento establecido en el artículo 60.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado 1, cada autoridad de control será competente para tratar una reclamación que le sea presentada o una posible infracción del presente Reglamento, en caso de que se refiera únicamente a un establecimiento situado en su Estado miembro o únicamente afecte de manera sustancial a interesados en su Estado miembro.

3. En los casos a que se refiere el apartado 2 del presente artículo, la autoridad de control informará sin dilación al respecto a la autoridad de control principal. En el plazo de tres semanas después de haber sido informada, la autoridad de control principal decidirá si tratará o no el caso de conformidad con el procedimiento establecido en el artículo 60, teniendo presente si existe un establecimiento del responsable o encargado del tratamiento en el Estado miembro de la autoridad de control que le haya informado.

4. En caso de que la autoridad de control principal decida tratar el caso, se aplicará el



prozedura erabiliko da. Kontrol-agintaritza nagusiarri informazioa eman dion kontrol-agintaritzak erabaki-proiektu bat aurkeztu ahal izango dio. Kontrol-agintaritza nagusiak proiektu hori ahal bezainbat hartuko du kontuan 60.3 artikuluan aipatzen den erabaki-proiektua prestatzeko.

5. Kontrol-agintaritza nagusiak kasua ez tratatzea erabakitzen badu, informazioa eman dion kontrol-agintaritzak tratatuko du, 61. eta 62. artikuluei jarraituz.

6. Tratamenduaren arduradunak edo eragileak egindako mugaz gaindiko tratamendua dela-eta, kontrol-agintaritza nagusia izango da arduradun edo eragile horren solaskide bakarra.

57. artikulua

Eginkizunak

1. Erregelamendu honek esleitzen dituen beste eginkizun batzuk eragotzi gabe, hauek dira kontrol-agintaritza bakoitzari bere lurraldean dagozkionak:

- a) Erregelamendu hau aplikatzen dela kontrolatzea eta betearaztea.
- b) Publikoaren sentsibilizazioa bultzatzea eta tratamenduaren inguruko arriskuak, arauak, bermeak eta eskubideak ulertaraztea. Arreta berezia jaso beharko dute hurrei berariaz zuzendutako jarduerak.
- c) Aholkularitza ematea, estatu kideetako zuzenbidea betez, parlamentu nazionalari, gobernuari eta beste instituzio eta erakunde batzuei, tratamendua dela-eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak babesteko neurri legegile eta administratiboei buruz.
- d) Tratamenduaren arduradun eta eragileen

procedimiento establecido en el artículo 60. La autoridad de control que haya informado a la autoridad de control principal podrá presentarle un proyecto de decisión. La autoridad de control principal tendrá en cuenta en la mayor medida posible dicho proyecto al preparar el proyecto de decisión a que se refiere el artículo 60, apartado 3.

5. En caso de que la autoridad de control principal decida no tratar el caso, la autoridad de control que le haya informado lo tratará con arreglo a los artículos 61 y 62.

6. La autoridad de control principal será el único interlocutor del responsable o del encargado en relación con el tratamiento transfronterizo realizado por dicho responsable o encargado.

Artículo 57

Funciones

1. Sin perjuicio de otras funciones en virtud del presente Reglamento, incumbirá a cada autoridad de control, en su territorio:

- a) controlar la aplicación del presente Reglamento y hacerlo aplicar;
- b) promover la sensibilización del público y su comprensión de los riesgos, normas, garantías y derechos en relación con el tratamiento. Las actividades dirigidas específicamente a los niños deberán ser objeto de especial atención;
- c) asesorar, con arreglo al Derecho de los Estados miembros, al Parlamento nacional, al Gobierno y a otras instituciones y organismos sobre las medidas legislativas y administrativas relativas a la protección de los derechos y libertades de las personas físicas con respecto al tratamiento;
- d) promover la sensibilización de los



sentsibilizazioa bultzatzea, erregelamendu honen indarrez dituzten betebeharrei buruz.

responsables y encargados del tratamiento acerca de las obligaciones que les incumben en virtud del presente Reglamento;

- e) Aldez aurretik eskatuta, edozein interesduni informazioa ematea erregelamendu honen indarrez dituen eskubideak egikaritzeari buruz, eta, behar izanez gero, helburu horri begira elkarlanean jardutea beste estatu kide batzuetako kontrol-agintaritzekin.
 - f) Erregelamendu honetako 80. artikuluari jarraituz interesdun, erakunde, organizazio edo elkarte batek aurkeztutako erreklamazioak tratatzea; behar den neurrian erreklamazioaren arrazoa ikertzea, eta erreklamatzaileraren arrazoizko epe batean jakitun ipintzea ikerketaren bilakabideaz eta emaitzaz, bereziki beste ikerketa batzuk behar badira edo beste kontrol-agintaritza batekin koordinazio estuagoa behar bada.
 - g) Beste kontrol-agintaritza batzuekin lankidetzan aritzea, bereziki informazioa partekatuz, eta elkarri laguntza ematea erregelamendu hau aplikatzean eta betearaztean koherentzia bermatzeko.
 - h) Ikerlanak egitea erregelamendu honen aplikazioari buruz, barne hartuta beste kontrol-agintaritza batek edo beste agintaritza publiko batek emandako informazioan oinarritutakoak.
 - i) Interesgarriak diren aldaketen jarraipena egitea, datu pertsonalen babesean eragiten duten neurrian, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean eta merkataritza-jardueretan.
 - j) Erregelamendu honetako 28.8 artikulua eta 46.2 artikuluko d) letrak aipatzen dituzten kontratuetarako klausulak finkatzea.
 - k) Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioa
- e) previa solicitud, facilitar información a cualquier interesado en relación con el ejercicio de sus derechos en virtud del presente Reglamento y, en su caso, cooperar a tal fin con las autoridades de control de otros Estados miembros;
 - f) tratar las reclamaciones presentadas por un interesado o por un organismo, organización o asociación de conformidad con el artículo 80, e investigar, en la medida oportuna, el motivo de la reclamación e informar al reclamante sobre el curso y el resultado de la investigación en un plazo razonable, en particular si fueran necesarias nuevas investigaciones o una coordinación más estrecha con otra autoridad de control;
 - g) cooperar, en particular compartiendo información, con otras autoridades de control y prestar asistencia mutua con el fin de garantizar la coherencia en la aplicación y ejecución del presente Reglamento;
 - h) llevar a cabo investigaciones sobre la aplicación del presente Reglamento, en particular basándose en información recibida de otra autoridad de control u otra autoridad pública;
 - i) hacer un seguimiento de cambios que sean de interés, en la medida en que tengan incidencia en la protección de datos personales, en particular el desarrollo de las tecnologías de la información y la comunicación y las prácticas comerciales;
 - j) adoptar las cláusulas contractuales tipo a que se refieren el artículo 28, apartado 8, y el artículo 46, apartado 2, letra d);
 - k) elaborar y mantener una lista relativa al



- bete behar dutenen zerrenda lantzea eta mantentzea, 35.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz.
- l) Aholkularitza ematea 36.2 artikuluan azaldutako tratamendu-eragiketen gainean.
- m) Erregelamendu honetako 40.1 artikularen arabera jokabide-kodeak landu daitezen sustatzea, eta 40.5 artikularen arabera berme nahikoak ematen dituzten jokabide-kodeen gaineko irizpena ematea eta kodeok onartzea.
- n) Datu-babesari buruzko ziurtapen-mekanismoak eta zigiluak eta markak sor daitezen bultzatzea, 42.1 artikuluari jarraituz, eta ziurtapen-irizpideak onartzea, 42.5 artikuluari jarraituz.
- o) Erregelamendu honetako 42.7 artikularen arabera emandako ziurtapenak aldizka berrikustea, hala badagokio.
- p) Erregelamendu honetako 41. artikularen arabera jokabide-kodeak ikuskatu behar dituzten erakundeak onesteko irizpideak eta 43. artikularen arabera ziurtapen-erakundeak onestekoak lantzea eta argitaratzea.
- q) Erregelamendu honetako 41. artikularen arabera jokabide-kodeak ikuskatu behar dituzten erakundeak onestea eta 43. artikularen arabera ziurtapen-erakundeak onestea.
- r) Erregelamendu honetako 46.3 artikulua aipatzen dituen kontratu-klausulak eta xedapenak baimentzea.
- s) Erregelamendu honetako 47. artikuluari jarraituz, arau korporatibo lotesleak onartzea.
- t) Lantaldearen jardueretan laguntza ematea.
- requisito de la evaluación de impacto relativa a la protección de datos, en virtud del artículo 35, apartado 4;
- l) ofrecer asesoramiento sobre las operaciones de tratamiento contempladas en el artículo 36, apartado 2;
- m) alentar la elaboración de códigos de conducta con arreglo al artículo 40, apartado 1, y dictaminar y aprobar los códigos de conducta que den suficientes garantías con arreglo al artículo 40, apartado 5;
- n) fomentar la creación de mecanismos de certificación de la protección de datos y de sellos y marcas de protección de datos con arreglo al artículo 42, apartado 1, y aprobar los criterios de certificación de conformidad con el artículo 42, apartado 5;
- o) llevar a cabo, si procede, una revisión periódica de las certificaciones expedidas en virtud del artículo 42, apartado 7;
- p) elaborar y publicar los criterios para la acreditación de organismos de supervisión de los códigos de conducta con arreglo al artículo 41 y de organismos de certificación con arreglo al artículo 43;
- q) efectuar la acreditación de organismos de supervisión de los códigos de conducta con arreglo al artículo 41 y de organismos de certificación con arreglo al artículo 43;
